

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**1130** *2/2021 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 26koa, Enpleguaren aldeko gizarte-neurriak indartzen eta finkatzen dituen.*

I

Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrienak, Enpleguaren Aldeko III. Gizarte Akordioa biltzen du (III. EAGA) I. tituluan. Akordio hori Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak eta gizarte-eragileek lortu zuten, Laneko Hiruko Jarraipen Batzordean.

Errege lege-dekretu horren bidez, besteak beste, erabaki hauek hartu ziren: 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan arautzen diren ABEEE aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen iraunaldia luzatzea (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena); langileak babesteko neurriak zabaltzea, bai langabezia-prestazioen zenbatekoetan eta haiek jasotzeko baldintzetan, bai kolektibo berrientzako neurriak hartuz; enplegua eta ehun produktiboa zaintzeko babes berezia behar duten sektoreak aintzatestea; ezinbestean ABEEEak (eragozpenean oinarritutako ABEEEak edo jardueramugetan oinarritutako ABEEEak) eragiten dituzten ezinbesteko bi egoera berri arautzea, Gizarte Segurantzaren salbuespenekin eta langileen babes bereziarekin lotutakoak.

Kontua zen pandemia gero eta bihurriagoari aurre egitea, enpresei eta langileei behar ziren baliabideak emanez agintaritzak eskudunek nahitaez hartu behar izan zituzten osasun-neurri murriztaileak jardueran sortzen zituzten gorabeherari aurre egiteko barne-malgutasuneko neurrien bitartez.

Aste gutxi batzuk geroago, epidemiaren eta osasun-arretaren adierazle nagusiak gero eta kezkarriagoak ziren. Hori ikusirik, Gobernuak 926/2020 Errege Dekretua onetsi zuen (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25koa, Alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko), segurtasun juridikoa emateko autonomia-erkidegoetako osasun-agintaritzak pandemiari aurre egiteko ezartzen ari diren mugitzeko murrizketei.

Pandemia gelditzeko osasun-neurriek jardueran gehien eragin dieten sektoreetako egoera zein larria zen ikusirik, EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako kodeak berraztertu ziren, 35/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluen bidez (35/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Turismoaren sektorea, ostalaritza eta merkataritza laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurriena); zehazki, elkarrizketa sozialaren barruan adostutako irizpideak oinarritzat harturik III. EAGAn kontuan hartu zirenak berraztertu ziren. Eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian araututako babes indartuan sartu zituen, pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialek bereziki eragiten diela agerian geratu den sektoreetako enpresen iraunkortasuna eta enpleguaren babesa bermatzeko neurriak ezartzeko espresuki.

Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan ezartzen diren neurriak eraginkorrak izan dira sare produktiboa eta langileak babesteko osasun-, ekonomia- eta gizarte-arloentzako une ezin zailago hauetan. Hain zuzen ere, 2020ko urriaz geroztik neurriok oso lagungarriak izan dira enpresei eusteko eta, beraz, enplegua babesteko.

2021eko urtarrilaren 8an UGT eta CCOO sindikatuak, CEOE eta CEPYME enpresari-elkarteak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa elkarrizketa sozialeko mahai berezian bildu ziren, hau da, Laneko Hiruko Jarraipen Batzordean, COVID-19aren ondoriozko krisiari aurre egiten jarraitzeko enpleguaren, langileen eta enpresen aldeko neurri gehiago behar al ziren erabakitzeko.

2021eko urtarrilaren 19an, Enpleguaren Aldeko IV. Gizarte Akordioa sinatu zen. Akordio horren edukian ageri denez, alderdi sinatzaileek uste dute 2020ko urriaren 1az gero ezarritako neurriak ezinbestekoak izan direla gure ekonomiari laguntzeko. Hala, IV. EAGAKo neurriak biltzen dituen errege lege-dekretu honetan, III. EAGAKo neurrien iraunaldia luzatzen da, baina kudeaketa erraztuta, neurri horiei heltzen dieten enpresen mesederako.

## II

SARS-CoV-2 birusaren hedapenaren ondoriozko pandemiak osasunean eta ekonomian daukan eragina hain da handia, ezen agintaritza eskudunek, dagoeneko aplikatzen diren neurriei eutsi ez ezik, neurri berriak ere ezarri behar izan baitituzte murrizketa zorrotzagoak ezartzeko. Murrizketa horiek, batez ere, ostalaritzan, jatetxeetan eta aisialdian izan dute eragina. Sektore horietako enpresaburu gehienak autonomoak dira, eta, horregatik, haien egoera larritu egin da.

Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak aparteko neurriak ezarri zituen langile autonomoak babesteko: jarduera uzteagatik prestazioak ezarri ziren jarduera bertan behera utzi behar izan zutenentzat eta negozioaren fakturazioa nabarmenki jaitsi zitzaientzat, arriskuan jarri baitziren haien jarduerak aurrera egiteko aukera eta haien familiaren beraren egonkortasun ekonomikoa. Neurri horietako gehienek 2021eko urtarrilaren 31ra arte egon behar zuten indarrean. Hala ere, pandemiak gizartearen eremu guztietan zer eragin larria daukan ikusirik, agerian geratu da langile horiek babesteko neurriak zabaldu behar zirela eta haien indarraldia luzatu.

Horregatik, behar diren doikuntzak egin eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritako laguntza-neurriei eusteko dira arau honetan ezartzen diren neurriak, laguntza-neurri horiek oraindik ere ezinbestekotzat jotzen baitira sare produktiboa indarberritzeko.

Aldaketak hiru eremutan egin dira: jarduera amaitzeagatik aparteko prestazioan; sasoiko langile autonomoentzako aparteko prestazioan; eta honetan: jarduera amaitzeagatik jasotzen den prestazio arrunta zabaltzea, norberaren konturako lanarekin bateratuta, 24/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenaren arabera prestazio hori jaso ez duten langile autonomoentzat (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena), eta jarduera amaitzeagatik ematen den prestazioa jasotzeko aukera mantentzea haren beharra izateagatik 2021eko urtarrilaren 31ra arte jaso izan dutenentzat.

Horrenbestez, uste da azaldutako arrazoiek ondo baino hobeto justifikatzen dutela neurriak errege lege-dekretu baten bidez onartzea; izan ere, ezinbestekoa da ahalik azkarren arintzea COVID-19aren ondoriozko krisi ekonomikoak langile autonomoengan izan dituen ondorioak, eta horretarako lege-proiektu bat izapidetzeak luzeegi joko luke. Beraz, errege lege-dekretua onartzea bat dator Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan ezartzen denarekin.

Beste alde batetik, eta helburu berarekin, zenbait neurri ezartzen dira behar bezain azkar ekiteko administrazio-prozedurak malgutzeari, betebeharrak betetzea erraztuz eta zenbait erregulazio luzatuz, betebeharrak gehiago sor ez dadin egun gure herrialdean sufrizten ari garen aparteko egoera honetan.

Besteak beste, kotizazioen inguruko neurriak ezartzen dira, enpresaburuek eta langileek bermatuta eduki ditzaten 2019ko urtarrilaren 31n indarrean zeuden gutxieneko kotizazio-oinarriak harik eta lanbide arteko gutxieneko soldata igo arte. Kontua da enpresaburuek eta langileek jasaten duten karga arintzea, baina eragotzi gabe ezen, soldata-igoeraren inguruko akordio soziala egonez gero, hori kotizazioetan islatu behar izatea, Gizarte Segurantzaren sistemari egiten zaion kaltea are handiagoa izan ez dadin, horren iturri nagusiak enpresaburuen eta langileen kotizazioak dira eta.

Gainera, pandemiak agerian ipini du gabeziak daudela administrazio-prozeduren izapideetan, ez baitute aukerarik eman herritarren eskaerei azkar erantzuteko; horren

ondorioz, Gizarte Segurantzaren esparruan atzerapenak gertatu dira interesdunei arreta emateko orduan eta haien beharrezko berehala erantzuteko gaitasuna behar zenean. Horregatik, zenbait neurri hartzen dira eskaerei ahalik azkarren jaramon egiteko eta herritarrei legezko prestazioak onartzen atzeratzeak kalte larririk ez egiteko haiei. Helburu berarekin, orobat, zenbait neurri hartzen dira administrazio publikoen arteko informazio-trukea bermatzeko eta Gizarte Segurantzaren Administrazioak prestazioen bat jasotzen duten langileen eta prestazioen jasotzaileen datuak eskuratu ahal izateko.

Halaber, egoera txarrean dauden babes soziala behar bezala bermatzeko asmoarekin, erabakia hartzen da erretiratzeko adinetik gertu egonik jarduera 2013 baino lehen utzi duten langileentzat Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak laugarren xedapen iragankorrean ezartzen dituen ondorioak luzatzeko 2021ean (testu hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), aukera eduki dezaten Gizarte Segurantzaren Sistema Eguneratu, Egokitu eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea indarrean jarri aurreko arautegiarekin bat etorri erretiratzeko. Neurri hori oso presa handikoa da, zeren eta laugarren xedapen iragankorra (egungo testua) «2021eko urtarrilaren 1a baino lehen» sortzen diren prestazioei bakarrik aplikatzen baitaie.

### III

Errege lege-dekretu honek zortzi artikulua dauka, bi titulutan bilduta, eta, horrez gainera, sei xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, hamaika azken xedapen eta eranskin bat.

Enpleguaren Aldeko IV. Gizarte Akordioa I. tituluaren lau artikuluetan dago bilduta (lehen lau artikulua), bai eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan eta lehenengo xedapen iragankorrean ere.

Arauen 1. artikuluan ezartzen da 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatzen direla COVID-19arekin zerikusia daukan ezinbesteko arrazoi batean oinarritutako ABEEE guztiak (martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. artikuluan arautzen dituenak), urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoeraren iraunaldi osoa hartzeko.

Gainera, aurrerantzean ere aplikatu ahal izango dira jardueraren eragozpenengatik ezinbestean egiten diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan eta ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezartzen denaren arabera baimendutakoak, baiespen-ebazpenean esaten den arte. Jarduera normala mugatzen duten eta ezinbesteko arrazoiengatik egiten diren ABEEEak, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan arabera baimenduak, 2021eko maiatzaren 31ra arte aplikatu ahal izango dira.

2. artikuluan bi gai arautzen dira. Batetik, aukera ematen da ABEEE berriak aurkezteko muga edo eragozpenengatik, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duen bezala eta bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Bestetik, berrikuntza hau xedatzen da: enpresa batek lortzen badu ezinbesteko ABEEE bati ebazpen bidez baiespena ematea jardueraren eragozpenengatik, ondoren ez da egongo berriz ere beste espediente bat izapidetu beharrik jarduera normalizaturako mugei dagozkien neurriak berehala aplikatu ahal izateko, eta gauza bera gertatuko da alderantziz ere. Nolanahi ere, kasu bakoitzean bidezkoak diren komunikazio-betebeharrak eta salbuespen-ehunekoak aplikatuko dira.

Aurrekoa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan eta ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezartzen denaren arabera indargabetuta dauden ebazpenei ere aplikatuko zaie.

Errege lege-dekretu honen 3. artikuluan ezartzen da luzatu egiten direla irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan arautzen diren III. EAGAREN gainerako eduki gehigarrien ondorioak; edukiok hauek dira, besteak beste: COVID-19arekin lotuta egonik ere arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako

espedienteei aplikatzen zaizkien espezialitateak; dibidenduen banaketan eta zerga-gardentasunaren inguruko mugak; aparteko orduak eta esternalizazio berriak; COVID-19arekin lotutako ABEEEn oinarrietan dauden arrazoiengatik gertatzen diren azkentzeen inguruko mugak eta aurreikuspenak eta aldi baterako kontratuen iraunaldiaren etenduraren ingurukoak.

Enpleguaren babesa dela eta, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan ondorioak luzatzen dira. Horren arabera, 5. artikuluan azaltzen diren baldintzak aplikatuko zaizkio babes horri, hala errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik gozatutako salbuespenei dagokienez, nola bertan ezartzen denaren arabera dagokienez. Hala:

– Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan arautzen diren onurei esker sortutako enpleguari eusteko konpromisoek indarrean jarraituko dute, arau horietan ezartzen diren moduan eta denboran.

– Errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren arabera Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzetik salbuesten diren enpresek konpromiso hau hartu beharko dute, salbuespen-neurri horien aplikazioa dela eta: beste sei hilabetez eutsi beharko diote enpleguari. Konpromiso horren edukia, baldintzak eta zenbaketa martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan arautzen dira.

– Baldin eta enpresak lehendik hartua badu enpleguari eusteko konpromiso bat, hori amaitutakoan hasiko da konpromiso berriaren aldia.

Beraz, horretan ere babes-klausularen eduki osoa aplikatzen da, eta, horren arabera, enpresek konpromisoa hartzen dute aurreko arautegiaren arabera hartutako sei hileko aldiko konpromisoak amaitutakoan enpleguari beste sei hilez eusteko, errege lege-dekretu honetan ezartzen denarekin bat etorriz; bigarren seihilekoa aurrekoa amaitutakoan hasiko da.

4. artikuluan, langileak babesteko neurriak arautzen dira. Hartu diren eta errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriak adostu beharrekoak direnez, oreka ezinbestekoa da. Horregatik, enpresak salbuespenen bidez bideragarriak izatea bermatzeaz gainera (izan ere, enplegua babesten da barne-malgutasuneko neurrien bitartez), langileak ere babestu behar dira, bi alderdiek baldintza murriztaile berak baitauzkate eta baldintza berak aplikatzen baitzaizkie.

Horrenbestez, artikulua honetan, langileak babesteko aparteko neurrien indarraldia luzatzen da. Hain zuzen ere, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan langabeen alde arautzen diren babes-neurriek jarraituko dute indarrean: 180 egun langabezian eman ondoren, prestazioaren zenbatekoa oinarriaren % 70 izango da, aurrez bezala, eta ez da jaitsiko % 50era; kontagailua hutsean mantenduko da artikulua horren 7. apartatuan ezartzen den kasuan, eta aldizkako kontratu finkoa duten langileak babesteko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako neurriek ere indarrean jarraituko dute. Gainera, hauek ere aplikatuko dira aurrerantzean: aldizkako kontratu finkoa duten pertsonak eta urtero data jakin batzuetan aldizkako lanak egiten dituztenek jasotzen duten aparteko prestazioa, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 9. artikuluan ezartzen duen luzapena dela bide; langabezia-prestazioen onuradun izan ez eta enplegu-erregulazioko espediente batean dauden langileentzat arau horren 10. artikuluan ezartzen diren neurriak; langabezia-prestazioen eta lanaldi partzialeko lanaren arteko bateragarritasuna, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 11. artikuluan arautzen duenarekin bat etorriz.

II. tituluaren langile autonomoei laguntzeko neurriak arautzen dira.

5. artikuluan arautzen da nola jasoko duten aparteko prestazioa langile autonomoek ebazpen bat dela bide egiten duten jarduera utzi behar izanez gero (erregulazioa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 13.1 artikuluan ezartzen duenaren antzekoa da).

6. artikuluan ezartzen da aparteko prestazioa jaso dezaketela diru-sarrerak murrizten zaizkien langile autonomoek, nahiz eta jarduera ez itxi, baldin eta ezin badute prestazioa

jaso jarduera uzteagatik arau honen 7. artikuluan edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren arabera, ez eta 7. artikuluan ezartzen denaren arabera ere (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

7. artikuluan arautzen da nola jaso daitekeen jarduera uzteagatik prestazioa aldi berean norbere kontura lan egiten den bitartean.

8. artikuluan, jarduera uzteagatik aparteko prestazio bat ezartzen da urteko lehen erdian gutxienez hiru hilabetean lan egiten duten sasoikako langileentzat.

Lehenengo xedapen gehigarriaren xedea enpresa hauek dira: ABEEEn estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskurapen-tasa txikia dituzten sektoreetako enpresak (estaldura-tasa handia: Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emandako soldatako pertsona guztien % 15etik gora erregulazioan; berreskurapen-tasa txikia: gutxienez sektoreko edo EJSNeko soldatako langileen % 70 erregulazioan). Enpresa horiek eta horien balio-katekoak edo mendekoak direnek babes berezia izango dute orain ere, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera: automatikoki salbuetsiko dira Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetatik, ABEEEaren eraginpean dauden langileei zein ez daudenei dagokienez.

Horrenbestez, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteei lotutako aparteko neurriak ezartzen dira Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagokienez eta baterako zerga-bilketaren kontzeptuen arabera, espediente horietarako lau errege lege-dekretutan aurrez hartu izan diren antzeko beste neurri batzuen ildo beretik (hona errege lege-dekretu horiek: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretua eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua). Neurriok aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira betiere: aldi baterako enplegu-espedientea automatikoki luzatu behar da (2021eko maiatzaren 31ra arte gehienez), eta enpresak ABEEEn estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskurapen-tasa txikia dituen sektore batekoa izan behar du eta haren jarduerak errege lege-dekretu honen eranskinean sartuta dauden EJSN 09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako koderen batean agertu behar du.

Bigarren xedapen gehigarrian, berriz ere Laneko Hiruko Jarraipen Batzordearen ohiko egitekoak ezartzen dira. Kideak eta bileren egutegia ere lehengoak dira.

Hirugarren xedapen gehigarrian, aurreko arau batzuetan bezala, luzatu egiten da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluen indarraldia; Mecuida plana arautzen da artikuluroretan.

Laugarren xedapen gehigarrian, luzatu egiten da, laneratzeko errenta aktiboaren programan sartzeko eta langabeziaren ezohiko subsidioa eskuratzeko kasuetan, norbera lan bila aktiboki ari dela egiaztatze baldintzaren aldi baterako etendura. Etendura hori 32/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du, lehenengo xedapen gehigarrian (32/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 3koa, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen).

Bosgarren xedapen gehigarrian, 2019ko urtarrilaren 31n indarrean zeuden gutxieneko kotizazio-oinarriak mantentzen dira, harik eta 2021erako lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera aplikatu arte.

Seigarren xedapen gehigarrian, langile autonomoen jarduera Gizarte Segurantzaren eremuan suspertzeko laguntza-neurrien jarraipena egiteko batzordeari agintzen zaio errege lege-dekretu honetan ezartzen diren arauen jarraipena egiteko eta arauok ebaluatzeko; batzorde hori ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren itzalpean eratu zen.

Beste alde batetik, lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan ezartzen dena aplikatuko dela 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bigarren xedapen iragankorrean ezartzen da luzatu egiten dela COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritzak eskudunak emandako ebazpenen bidez jarduera aldi batez erabat etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoek jarduera

uzteagatik jasotzen duten eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 13. artikulua 1. apartatua arautzen duen aparteko prestazioaren iraunaldia.

Hirugarren xedapen iragankorrean, Gizarte Segurantzaren Administrazioak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak nortasun-datuak egiaztatzeko araubide iragankor bat ezartzen da, harik eta Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 129.4 artikuluan ezartzen diren ebazpenak eman arte.

Laugarren xedapen iragankorrean, eten egiten da 28/2018 Errege Lege Dekretuak bigarren xedapen iragankorrean ezartzen duen tasa-igoera (28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzekoa). Beraz, 2020ko abenduaren 31n indarrean egon direnak izango dira Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubidean dauden langile autonomoen kontingentzia profesionali dagozkien kotizazio-tasak eta jarduera eteteagatik jasotzen den babeserako kotizazio-tasak.

Bosgarren xedapen iragankorrean, azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean aldeko ebazpena jaso duten prestazio- eta subsidio-eskaerei aplikatuko zaien araubidea ezartzen da.

Xedapen indargabetzaile bakarrean, arauak indargabetzeko klausula generiko bat dago. Horrez gainera, berariaz indargabetzen dira, batetik, 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hamaseigarren xedapen gehigarria (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko) eta, bestetik, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. eta 14. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria

Azken xedapenetako lehenengoan, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.2 artikulua aldatzen da, arau horren 25.1.a) artikuluan azaltzen den neurria aplikatzeko eskatzen diren beharrezko argitzeko (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan langabezia-prestazioa onartzeko behar den kotizazio-aldiari buruzkoa da).

Beste alde batetik, hobekuntza teknikoak xede harturik, eta IV. EAGaren esparrutik kanpo, azken xedapenetako bigarrenean, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9.2 artikulua aldatzen da, argitzeko bertan arautzen den aparteko prestazioa jaso dezaketela aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen eta urtero data jakin batzuetan aldizkako lanak egiten dituztenek.

Azken xedapenetako hirugarrenean, Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziatzeko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legearen 89., 97., 105. eta 106. artikulua aldatzen dira. Hain zuzen ere, 89. artikulua manuen arteko korrespondentzia mantentzeko zuzendu behar da.

Halaber, 97 a) artikulua aldatzen da, ezinbestekoa baita ahalik azkarren malgutzea eta argitzea bidaiderik gabeko adingabeak Gazte Bermearen Sistema Nazionalen sartzeko prozedura eta horretarako bete beharreko baldintzak, bi helburu hauek lortzeko: batetik, errazagoa izatea adingabe horiek fitxategian inskribatzea (legez eskatzen den lan-baimenaren beharrezko argitzea); bestetik, bermatzen da adingabe horiek parte hartu ahal izatea Gazte Bermearen esparruan eskaintzen diren epe laburreko eta ertaineko arreta-programa eta -planetan.

105. artikulua ere aldatu behar izan da, Gobernuak pandemian enpleguari eusteko hartu dituen neurrien espiritura egokitzeko. Hori dela eta, malgotu egiten da Gazte Bermearen esparruan hezkuntzako edo prestakuntzako arreta jasotzeko adingabeari ezartzen zaion beharrezko argitzea: aurreko egun naturalean lanik ez egitea.

Azken xedapenetako laugarrenean, aldatu egiten da Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikulua a) paragrafoa (testu bategina abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), lan-arloko zehapen-prozedura administratiboa teknologia berriek ematen dituzten aukeretara moldatzeko; hain zuzen ere, prozedura berezia abiaraziko da zehapen-akta automatizatuaren bidez, hau da, funtzionario jardule batek zuzenean esku hartu gabe eta administratuen berme juridikoak murriztu gabe.

Azken xedapenetako bosgarrenean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzen da, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Hona aldaketaren xehapena:

Batetik, 40. artikulua aldatzen da. Gizarte Segurantzaren Administrazioari datuak lagatzeko edo jakinarazteko betebeharra arautzen du artikulua horrek, batez ere hark diru-bilketako lanak egin ditzan. Aldaketarekin, gainerako eskumeneko lanak (eta, zehazki, likidazioa eta kotizazioen kontrola) egiteko behar diren datuak, txostenak eta aurrekariak ere jakinarazi beharko zaizkio, eta zehazten da informazio hori eskuragarri egon behar dela datu-bitartekaritzarako plataformen bitartez eta erabili ahal izango dela tratamendu analitikorako tekniken bitartez.

Arau-aldaketa hori presaka egin behar izatea lotuta dago 2020ko martxoaz geroztik kuoten likidazioetan aplikatzen diren kotizazio-salbuespenak kontrolatu beharrezkin.

Gainera, esparru juridiko egokia ezarri behar da erabateko estaldura emateko estatistikako datuak trukatzeko sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenei, kontuan edukita gero eta datu-eskaera gehiago egiten dituztela beste erakunde batzuek eta kontuan edukita Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak lankidetzan jardun behar duela beste administrazio publiko batzuekin, elkarri helarazteko beren erregistro administratiboetako datuak estatistikak egiteko.

Horrez gainera, 71. artikulua izenburua eta 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira, Gizarte Segurantzaren babes-sistema modu eraginkorrean kudeatzen dela bermatzeko. Izan ere, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei eman beharreko informazioaren horniduraren erregulazioa egokitzen eta eguneratzen da, eta, horri esker, prestazioak azkarrago onartuko dira eta horretarako jarduketak automatizatu ahal izango dira.

Pandemiak agerian utzi du arreta emateko modu alternatiboak aurkitu behar direla, presentziala ez beste batzuk, eta telelana bultzatu behar dela, ahal den neurrian. Hori agerian geratzean proposatzen dira, bada, aldaketa horiek; ahalik azkarren arautu behar da historia klinikoak eskuratzeko prozedura, ezinbestekoak baitira langileen ezintasunak ebaluatzeko. Historia klinikoak telematikoki eskuragarri egonik, ikuskatzaile medikoek ebaluazioak egin ahal izango dituzte langileak modu presentzian aztertu gabe, baldin eta uste badute historia klinikoan dagoen informazioa aski dela horretarako, eta, horrela, COVID-19 birusa hedatzeko eta kutsatzeko arriskua murriztuko da.

Aukera hori bera arautzen da osasun-zerbitzu publikoen ikuskapenentarako ere, orain beharrezkoa baita lan administratiboak arintzea eta kudeaketa azkarragoa izatea.

71. artikuluan proposatzen diren aldaketei esker entitate kudeatzaileen kudeaketa hobetuko da: azkarrago lortu ahal izango dute behar duten informazioa, eta informazioa, gainera, prestazioak onartzeko prozeduretan erabiltzen diren aplikazio informatikoekin bateragarriak diren formatu elektronikoetan eskuratuko da.

Beste alde batetik, Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden langile batzuen historia klinikoak eskuratzeko aukera arautu behar da, kudeaketa hobetzeko eta langileok proba medikoak errepikatu beharrik ez izateko orain helburu batekin eta orain beste batekin.

Herritarrentzat ere mesedegarria izango da hobekuntza hori, aurrerantzean ez baitute lanik hartu beharko aurkeztu beharreko informazioa aurkezteko.

Gizarte Segurantzaren Legearen testu bateginaren 77. artikulua 1. apartatua aldatuz, aukera eman nahi zaie Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei eta zerbitzu komunei datuak erabiltzeko eta beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, haien egitekoentarako beharrezkoak izanez gero (egiteko horietako asko Gizarte Segurantzaren Administrazioaren egitekoekin lotuta daude).

Beste alde batetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 129. artikulua aldatzen da, erregulazioa eguneratzeko eta interesdunen autentifikazioaz eta Gizarte Segurantzaren Administrazioaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren prozeduretan sinadura erabiltzeko moduez ezartzen duena zabaltzeko.

130. artikulua aldatuta, erregulazioa osatzen da, afiliazio-, kotizazio- eta bilketa-prozeduretara zabalduz gaur egun langabeziaren babesaren prozedurak (III. titulua) eta

Gizarte Segurantzaren gainerako prestazioak (kotizaziorik gabeko pentsioak ez beste guztiak) modu automatikoan kudeatzeaz ezartzen duena.

Halaber, arautzen da interesdunen nortasuna egiaztatzeko beste bide batzuk erabiltzeko modua eta baldintzak Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzaren ebazpen baten bidez ezarriko direla. Nolanahi ere, ezartzen da ezen, harik eta ebazpen hori errege lege-dekretu honen hirugarren xedapen iragankorrean ezartzen denarekin bat etorri eman arte, Gizarte Segurantzaren Administrazioak berak kudeatzen dituen prozeduretako interesdunen nortasuna egiaztatu ahal izango duela eskura dauzkan datuak eta informazioak alderatuz eta bertaratu gabeko jarduketak eginez.

Orobat, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari beste xedapen gehigarri bat erantsi behar zaio, hogeita hamahirugarrena, aldatu behar baita Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen eta zerbitzu komun en organo probintzialen lurralde- eskumena, horien zuzendaritza probintzialak eta haien mendeko unitateak jardun ahal izan daitezen probintziatik kanpoko eremuetan, zuzendaritza-organoen gorenak ezartzen duenarekin bat etorri. Horrela, kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa izango da eta antolaketa gizarteak eskatzen dituen aldaketetara moldatu ahal izango da.

Beste alde batetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari beste xedapen gehigarri bat erantsen zaio, hogeita hamalagarrena, behin betiko bihurtzeko alarma-egoera indarrean egon zen aldiaren RED sistemaren bidez jarduteko baimena dutenei eman zitzaizen ahalmena. Horren helburua da Gizarte Segurantzaren araubideetako batean alta ematen zaien langileen edo horien parekoen telefono mugikorraren zenbakia ematea Gizarte Segurantzaren Administrazioari, RED sistemaren bidez, interesdunek ados daudela adieraziz gero (egiaztatu egin behar da), Gizarte Segurantzarekikoak errazago egin ahal izateko; izan ere, telefono mugikorra baliabide merkea, segurua eta oso zabaldua da, eta, horri esker, herritarrek ez dute edukiko zertan joan Gizarte Segurantzaren Administrazioaren bulegoetara.

Halaber, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari beste xedapen gehigarri bat erantsen zaio, hogeita hamabosgarrena. Xedapen horretan ezartzen da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak autonomia-erkidegoekin eta, hala denean, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin sinatzen dituen hitzarmenetan nahitaez ezarri behar direla helburu bereziak langileen historia klinikoa elektronikoki eskuratzeari buruz (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, 71.3 artikulua) eta informazio-trukeari eta eskuratze horien jarraipenari buruz.

Azkenik, laugarren xedapen iragankorraren 5. apartatua aldatzen da, bermatzeko 2021. urtean bere horretan mantenduko dela abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen aurreko araudia 2013 baino lehen lan-harremana azkendu zitzaizen kolektibo batzuetarako. Hori 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea (18/2019 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Zergen arloko, katastroaren arloko eta gizarte-segurantzaren arloko zenbait neurri ezartzen dituena) ez da nahikoa izan erregulazio berriak zenbait langileri ekarriko lizkiekeen ondorioak arintzeko; langile horiek adintsuak ziren lan-merkatutik irten zirenean, ezin izan diote berriro ekin lanbide-karrerari, eta horrek zuzenean eragina izan du haien kotizazio eta prestazioetan. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 2021aren amaierara arte hedatzea, segurtasun juridikoa bermatzeko eta berdintasuna zaintzeko.

Azken xedapenetako seigarrenak azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikulua aldatzen ditu, ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten, kulturaren sektoreko teknikari eta laguntzaileen eta zezenketetako profesionalen langabezia-prestazioaren iraupena luzatzeko.

Azken xedapenetako zazpigarrenak 34/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan aldatzen du (34/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 17koa, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurriena).

Azken xedapenetako zortzigarrenak 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 4.1 artikulua aldatzen ditu (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko), etxebizitza-errentari kalteberen babesa zabaltzeko. Horrela, egungo alarma-egoera amaitu arte eskatu ahal izango da errentaren ordainketan luzamendua aplikatzeko edo errentaren



zati bat barkatzeko, errentatzailea edukitzaile handia edo erakunde publikoa denean errege lege-dekretu horretan arautzen denaren arabera, eta egun horretara arte luzatuko dira sei hilabeteko aparteko luzapenari heldu ahal dioten etxebizitza-errentamenduko kontratuak, indarreko kontratuaren baldintzak mantenduz.

Azkenik, azken xedapenetako bederatzigarrenean eskumen-tituluak aipatzen dira; azken xedapenetako hamargarrenak ahalmena ematen dio Gobernuari errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko, eta azken xedapenetako hamaikagarrenak errege lege-dekretu hau indarrean noiz ipiniko den ezartzen du.

#### IV

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua aparteko eta presako beharrezko dagoen egoerarako xedatzen duen aukerari dagokionez, errege lege-dekretu honen edukia arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da –besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespeneko egoera larrian–, eta horrek ezinbesteko egiten du erantzun egokia ematea lan-eremuan eta gizarte-eremuan sortzen diren premiei.

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezko» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoientatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentariarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Funtsean, errege lege-dekretu hau onartzeko ezohiko eta presako beharrezko judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 14/2020 epaia, urtarrilaren 28koa, 4. oinarri juridikoa), halako eran non erantzun egokia emango baita enpresen jardura ekonomikoa eta ekoizpena berriro bere onera ekartzeko, segurtasun juridikoa bermatzeko eta deskribatutako egoera kalteberak izan daitezkeen taldeak babesteko; lehentasun horiek aparteko eta presako ezaugarriek definitzen dituzte.

Azaldutako arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azaldutako urgentziatzko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrarioak.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan aparteko eta presako beharrezko inguruabarrak gertatzen dira, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arautzen duen bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen

herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

V

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregulazio onaren printzipioak ezartzen dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eta errege lege-dekretu honek printzipio horiek betetzen ditu.

Premia- eta eraginkortasun-printzipioekin bat etorriz, interes orokorreko arrazoi batek justifikatzen du araugintza-ekimena, behin lortu nahi diren helburuak identifikatuta eta errege lege-dekretua jota tresna egokientzat helburu horiek lortuko direla bermatzeko. Bestalde, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak egokiak eta neurritzkoak dira eurak onartu beharra ekarri duten beharrianetarako. Egiaztatu da ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko lukeenik edo jasotzaileei betebehar gutxiago ezarriko liekeenik. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimen hau gauzatzean koherentzia gorde da gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta segurtasuneko araugintza-esparru bat sortu da, erraztasunak emango dituen araua ezagutzeko eta, ondorioz, ukitutako pertsona eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Arau honek gardentasunaren printzipioa ere betetzen du; izan ere, argi eta garbi zehazten ditu bere arrazoiak eta helburuak, azalpen-zatian eta dagokien apartatuan. Beste alde batetik, ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapideak, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26. artikuluan ezartzen dituenak, artikuluko horren 11. apartatuan errege lege-dekretuetarako ezartzen duen salbuespenari helduta.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da, Estatuari eskumen eksklusiboa ematen baitiote lan-arloko legediaren eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuz, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroaren eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 26ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

## Enpleguaren Aldeko IV. Gizarte Akordioa

1. artikulua. *Pandemiarekin zerikusia daukaten ezinbesteko arrazoietan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen luzapena eta kotizazioen arloko aparteko neurriak.*

1. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan jasotako arrazoietan oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatuko dira, berez.

2. Halaber, luzatutzat jotzen dira jarduera batean aritzeko eragozpenen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, 24/2020 Errege Lege Dekretuak lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatzen duenarekin bat etorriz baimendutakoak (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena). Espediente horiek esanbidezko zein isilbidezko baiespen-ebazpenetan ezartzen denaren arabera egongo dira indarrean.

Hala ere, 2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra arte espediente horiei 3. apartatuan ezartzen diren salbuespen-ehunekoak aplikatuko zaizkie.

3. Halaber, jarduera batean aritzeko eragozpenen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorri baimendutakoak (30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena), indarrean egongo dira itxiera-aldian eta 2021eko maiatzaren 31ra arte, esanbidezko zein isilbidezko baiespen-ebazpenetan ezartzen denaren arabera, eta xedapen horretan ezartzen diren kotizazioen arloko aparteko neurriak aplikatuko zaizkie.

4. Jarduera batean aritzeko murrizketen ondorioz egiten diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan arabera baimenduak, 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatuko dira, berez.

Espediente horiei salbuespen hauek aplikatu ahal izango zaizkie, 2021eko otsailaren 1etik aurrera:

a) Jarduera etenda daukaten enpresetako langileei dagokienez eta etenda dauzkaten aldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2021eko otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean sortutako enpresa-ekarpenen % 100, % 90, % 85 eta % 80 salbuetsiko da, hurrenez hurren, baldin eta 2020ko otsailaren 29an enpresak 50 langile (edo langileen pareko) baino gutxiago eduki baditu alta emanda Gizarte Segurantzaren.

b) Jarduera etenda daukaten enpresetako langileei dagokienez eta etenda dauzkaten aldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2021eko otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean sortutako enpresa-ekarpenen % 90, % 80, % 75 eta % 70 salbuetsiko da, hurrenez hurren, baldin eta 2020ko otsailaren 29an enpresak 50 langile (edo langileen pareko) edo gehiago eduki baditu alta emanda Gizarte Segurantzaren.

5. 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren salbuespenak hauei aplikatuko zaizkie: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 273.2 artikuluan arabera langileei egiten zaizkien enpresa-ekarpenei (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zuen) eta baterako bilketaren kuotei.

2., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren kuota-salbuespenak aplikatzeko prozedura eta baldintzak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen direnak izango dira, baina 2. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan arautzen dena bete beharko da betiere.

## 2. artikulua. *Jarduera eragoztearen edo murriztearen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak.*

1. Pandemia gelditzeko murrizketek eta osasun-neurriek kalte egindako enpresek eta entitateek enplegu-erregulazioko espedienteak eskatu ahal izango dute jardueran aritzeko eragozpen edo murrizketengatik, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, 2021eko otsailaren 1etik maiatzaren 31ra arte, 2. apartatuan ezartzen dena aplikatzea ez badagokie.

Kasu horietan Gizarte Segurantzaren kuotetan salbuespenak aplikatzeko prozedura eta baldintzak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen direnak izango dira.

Jarduera batean aritzeko eragozpenetan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan, 2021eko otsailetik maiatzera bitarteko Gizarte Segurantzaren kuotetan aplikatu ahal izango diren salbuespen-ehunekoak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan arautzen direnak izango dira.

Jarduera baten aritzeko murrizketetan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan, 2021eko otsailetik maiatzera bitarteko Gizarte Segurantzaren kuotetan aplikatu ahal izango diren salbuespen-ehunekoak 1.4 artikuluan arautzen direnak izango dira.

2. Lan-arloko agintaritzak aurreko apartatuan aipatzen diren ezinbesteko egoeretako bat gertatzen dela esanbidezko edo isilbidezko baiespen-ebazpen baten bidez egiaztatuko dira.

ondoren, agintari eskudunek osasun-murrizketetan egiten dituzten aldaketen ondorioz eragozpenetik murrizketara zein murrizketatik eragozpenera pasatzeko, ez da izapidetu beharko aldi baterako enplegu-erregulazioko beste espediente bat.

Hori alde batera utzi gabe, enpresa jasaten ari den ezinbesteko egoeraren arabera salbuespen-ehunekoa aplikatuko da aldi bakoitzean, jardueran aritzeko modurik ez izateagatik edo jarduteko eragozpenak izateagatik aplikatu daitekeena.

3. Egoera 2. apartatuan azaltzen den bezala aldatzen zaien enpresek aldaketaren berri eman beharko diete espediente onetsi duen lan-arloko agintaritzari eta langileen legezko ordezkariari, aldaketak ondorioak noiz sortuko dituen eta haren eraginpean zer zentro eta langile dauden zehaztuta.

Lan-arloko agintaritzari egoeraren aldaketaren berri eman dioten enpresek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2.3 artikuluan ezartzen duen bezala. Erantzukizunpeko adierazpen hori aski izango da salbuespen-ehunekoa aplikatzeko, kasuan kasukoa, enpresaren ezinbesteko egoeraren arabera (jardueran aritzeko modurik ez izatea edo jarduteko eragozpenak izatea).

Lan-arloko agintaritzak komunikazio hori helaraziko dio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari, Gizarte Segurantzako kuoten ordaintzetan salbuespenak ondo aplikatu diren egiaztatze behar diren kontrol-lanak egin ditzan.

4. 2. eta 3. apartuetan ezartzen dena kasu honetan ere aplikatuko da: lan-arloko agintaritzaren esanbidezko zein isilbidezko baiezen-ebazpena irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen dena aplikatuz edo ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatzen dena aplikatuz ematen denean jardueran aritzeko modurik ez dagoen egoera batetik jardueran aritzeko eragozpenak dauden egoera batera pasatzean, edo alderantziz, Espainiako agintaritzak eskudunek erabakitako neurrien ondorioz.

### 3. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren eduki osagarrien indarraldia luzatzea.*

1. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie, 2021eko maiatzaren 31ra arte, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren abiaraziak badira eta COVID-19arekin lotutako arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan eta ekoizpenekoetan oinarrituta badaude.

Halaber, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.4 artikuluan ezartzen dena aplikatu ahal izango zaie oraindik ere, 2021eko maiatzaren 31ra arte, COVID-19arekin lotutako arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan eta ekoizpenekoetan oinarrituta dauden eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik abiarazi diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei.

2. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen den dibidendu-banaketaren mugak eta banaketa horretaz ezarritakoa 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo dira indarrean arau honen aurretik edo arau honen ondorioz hasi diren eta errege lege-dekretu honetan araututako salbuespenetako bat aplikatzen zaien espediente guztietan.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen den zerga-gardentasunaren mugak eta gardentasun horretaz ezarritakoa 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo dira indarrean arau honen aurretik edo arau honen ondorioz hasitako espediente guztietan.

4. Enpleguaren babesa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan ezartzen denaren arabera aplikatuko da aurreko aldiei eta arau honetako onuren ondoriozko aldiari dagokienez, epealdiekin bat etorriz.

5. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen diren aparteko orduen eta kontratazio eta esternalizazio berrien mugak eta salbuespenak 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo dira indarrean, eta arau honen ondorioz baimendutako espediente guztietan aplikatu ahal izango dira.

6. Martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 5. artikulua (9/2020 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19aren ondorioak arintzeko) 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo dira indarrean.

4. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan langileak babesteko jasotako neurrien indarraldia luzatzea.*

1. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan arautzen diren langabeziatik babesteko aparteko neurriak 2021eko maiatzaren 31ra arte aplikatuko zaizkie bai artikulua horietan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean dauden pertsonen eta bai arau honetan ezartzen diren enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpekoen, berezitasun hauekin:

a) Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.7 artikulua bertan ezartzen den aldi egongo da indarrean, eta bertan ezartzen denarekin bat etorritik.

b) Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.2 artikuluan xedatzen den langabezia-prestazioa jasotzeko eskaera kolektiboak aurkeztuta daukaten enpresek ez dute edukiko zertan aurkeztu beste eskaera bat aurrekoan ageri diren langileentzat.

2. Orobat, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.1 artikuluan eta 9. artikuluan arautzen diren langileak babesteko aparteko neurriak 2021eko maiatzaren 31ra arte aplikatuko dira. Artikulu horietan 2021eko urtarrilaren 31 aipatzen denean, testua 2021eko maiatzaren 31z ari dela ulertu behar da.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren langileak babesteko aparteko neurriak 2021eko maiatzaren 31ra arte aplikatuko zaizkie bai artikulua horietan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean dauden pertsonen eta bai errege lege-dekretu honetan ezartzen diren enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpekoen.

## II. TITULUA

### Langile autonomoen laguntzeko neurriak

5. artikulua. *Jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazioa, COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritzaren eskudunak emandako ebazpenen ondorioz jarduera ekonomikoa aldi batez erabat etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoentzako.*

1. 2021eko otsailaren 1etik aurrera, COVID-19 birusaren hedapena murrizteko asmoarekin agintaritzaren eskudunak hartutako ebazpen baten eraginez jarduera guztiak bertan behera utzi behar izan dituzten langile autonomoen aparteko prestazio ekonomikoa jaso ahal izango dute jarduera uzteagatik, arau honetan xedatzen denarekin bat etorritik eta baldintza hauek betez gero:

a) 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen afiliatuta eta alta emanda egotea Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo, bestela, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian.

b) Gizarte Segurantzarekiko kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, jarduera utzi den datan betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epealdi luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

2. Prestazioaren zenbatekoa egiten den jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50 izango da.

Langile autonomoa familia ugari bateko kidea bada eta familia-unitatearen edo antzeko unitatearen diru-sarrerak bakarrik bertan behera utzitako jarduerak sortzen baditu, aurreko kopurua % 20 gehituko da.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek edo gehiagok aparteko prestazioa jaso ahal badute jarduera uzteagatik, prestazio bakoitzaren zenbatekoa gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 40 izango da eta ezin izango da aplikatu aurreko apartatuan familia ugariarentzat ezarritakoa.

3. Prestazioa jasotzeko eskubidea agintaritza eskudunak jarduera utzarazten duen neurria ezarri eta hurrengo egunean sortuko da.

4. Jarduerarik egiten ez den aldian langile autonomoa alta emanda egongo da behar den araubide berezian eta ez du edukiko kotizatu beharrik. Kuotak ordaindu beharrendaren salbuespenaren indarraldia jarduera bertan behera uzten den hileko lehen egunean hasiko da, eta neurria kentzen den hilaren hurrengo hileko azken egunean amaituko, edo 2021eko maiatzaren 31n, maiatzaren 31 beste data baino lehenagokoa bada.

Langile autonomoak kotizatu beharrik ez daukan aldia kotizatutzat joko da eta aldi horretako kotizazioak aurrekontuen kargura prestazioa estaltzen duen entitateak ordainduko ditu.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Jarduera uzteagatik ematen den aparteko prestazioa jasotzen duen langilearen kotizazioetan aplikatu daitezkeen kenkariaren gehieneko iraupena eta aplikatzeko gainerako baldintzak ez dira aldatuko aparteko prestazioa jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak apartatu honetan ezartzen dena betetzeko behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hark ezartzen dituen prozeduren bitartez, bai prestazioa behin-behinean onartzen denean, bai ondoren, berrikusten denean, 9. apartatuan ezartzen den bezala.

5. Prestazio hau ez da bateragarria beste hauekin: ordainsariak jasotzea besteren kontura lan eginda, non eta besteren konturako lanaren diru-sarrerak ez diren lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino gutxiago; norberaren konturako beste jarduera batean aritzea; itxierak jarduera ukitu dion sozietatearen etekinak jasotzea; Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzea (salbuespena: onuradunak bera zebilen jarduerarekin bateragarria izanik jasotzen duen prestazioa).

Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da flota gerarzteagatik ematen diren laguntzekin.

6. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta erabaki badute norberaren konturako langileen araubide berezian sartzea eta apartatu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

7. Prestazio hau Itsasoko Gizarte Institutuak edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek kudeatuko dute.

8. Prestazioa lau hilabetez jasoko da gehienez. Jasotzeko eskubidea neurriak kentzea erabakitzen den hileko azken egunean amaituko da, edo 2021eko maiatzaren 31n, maiatzaren 31 beste data hori baino lehenagokoa bada.

Prestazioa jasotzen den denborak ez ditu laburtuko jarduera eteteagatik onuradunak etorkizunean prestazioa jaso dezakeen aldiak.

9. Artikulu honetan arautzen den prestazioa jarduera ixteko erabakia edo ebazpena indarrean jartzen denetik hogeita bat egun natural igaro aurretik eskatu behar da.

Eskaera ezarritako aldia amaitutakoan aurkeztuz gero, prestazioa jasotzeko eskubidea eskaera-egunean hasiko da. Hala ere, langileak ez du edukiko kotizatu beharrik gobernu-agintaritzak jarduera debekatzen duen hileko lehen egunetik aurrera; nolahi ere, hala gertatzen denean, eskaera-egunaren aurreko aldia ez da kotizatutzat joko eta prestazioa estaltzen duen entitateak ez ditu kotizazioak ordainduko.

Prestazioa kudeatzen duen entitateak behin-behineko ebazpena emango du, aurkeztutako eskaeraren arabera eta, behar denean, aurkeztutako dokumentuen arabera, eta eskubidea onartu edo ukatuko du. Jarduera ixteko neurria amaitutakoan, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira. Berrikuspenean ondorioztatzen bada interesdunak ez daukala prestazioa jasotzeko eskubiderik, bidegabe lortutako diru kopuruak erreklamatzeko izapideak hasiko dira. Gainera, halako kasuetan, prestazioa bidegabe jasotako aldi osoko kotizazioak ordaindu beharko dira, eta, horretarako, Gizarte Segurantzaren sistemako diru-bilketako prozedura bere osoan aplikatuko da.

10. Prestazioaren eskabidean, interesdunak prestazioa kudeatzen duen mutualitateari edo entitateari adierazi beharko dio zein diren familia-unitateko kideak eta haietako batek prestazioa jaso edo jasotzen duen jarduera uzteagatik edo familia-unitateak beste diru-sarrerarik daukan; gainera, eskabidean adierazi behar da familia-unitateko kide guztiek oniritzia ematen dutela beren zerga-informazioa ikusten uzteko.

Eskabidea izapidetzeko onartuko bada, ezinbestekoa da unitateko kideek lan eginez jasotzen dituzten diru-sarreraren zinpeko aitortpena aurkeztea; halaber, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzen laguntzen duten mutualitateei baimena eman behar zaie Ogasun Ministerioari behar diren zerga-datuak eskatzeko, prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten. Hori guztia gorabehera, prestazioaren jasotzaileak enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu behar dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

6. artikulua. *Jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazioa, errege lege-dekretu honen 7. artikuluan jarduera uzten dutenentzat arautzen den prestazio arrunta edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan jarduera uzten dutenentzat arautzen den prestazioa jaso ezin duten langile autonomoentzako (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).*

1. Jarduera utzi eta ez lege-dekretu honen 7. artikuluan jarduera uzten dutenentzat arautzen den prestazio arrunta eta ez Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan jarduera uzten dutenentzat arautzen dena jaso ezin duten langile autonomoek jarduera uzten dutenentzat artikulua honetan arautzen den aparteko prestazio ekonomikoa jaso ahal izango dute arau hau indarrean jartzen denetik, baldintza hauek betez gero:

a) Alta emanda egotea norberaren konturako langile modura Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian 2020ko apirilaren 1etik aurrera, eta kotizazioak ordainduta edukitzea.

Hala ere, eskabidea aurkezten den egunean kotizazioak ez badaude ordainduta, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epealdi luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

b) Norberaren konturako jardueraren bidez 2021eko lehen seihilekoan lortutako etekin garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, ez izatea 6.650 euro baino gehiago.

c) Norberaren konturako jardueraren bidez 2021eko lehen seihilekoan lortutako etekin garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, 2020ko lehen hiruhilekoan lortutakoak baino gutxiago izatea.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, kontuan eduki behar da 2020ko lehen hiruhilekoko alta-aldia, eta 2021eko lehen seihilekoan lortutako diru-sarreraren proportzio bereko zatiarekin alderatuko da.

2. Prestazioaren zenbatekoa egiten den jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50 izango da.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek

edo gehiagok aparteko prestazioa jaso ahal badute jarduera uzteagatik, prestazio bakoitzaren zenbatekoa gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 40 izango da.

3. Jarduera uzteagatik emango den aparteko prestazio hori 2021eko otsailaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango da sortzen, eta gehienez lau hilabete iraungo du, baldin eta eskaera otsaileko lehen hogeita bat egun naturaletan aurkezten bada. Bestela, eskaera aurkezten den hilaren ondoko hileko lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta gehienez 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo da indarrean.

4. Prestazio hau ez da bateragarria hauekin: ordainsariak jasotzea besteren kontura lan eginda, non eta besteren konturako lanaren diru-sarrerak ez diren lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino gutxiago; norberaren konturako beste jarduera bat egitea; sozietate baten etekinak jasotzea; Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzea (salbuespena: onuradunak bera zebilen jarduerarekin bateragarria izanik jasotzen duen prestazioa).

Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden norberaren konturako langileei dagokionez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da flota gerarzteagatik ematen diren laguntzekin.

5. Prestazioa jasotzen den aldian, langile autonomoa alta emanda egongo da behar den araubide berezian, eta ez du edukiko kotizatu beharrik.

Langile autonomoak kotizatu beharrik ez daukan aldia kotizatutzat joko da eta aldi horretako kotizazioak aurrekontuen kargura prestazioa estaltzen duen entitateak ordainduko ditu.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Jarduera uzteagatik ematen den aparteko prestazioa jasotzen duen langilearen kotizazioetan aplikatu daitezkeen kenkariaren gehieneko iraupena eta aplikatzeko gainerako baldintzak ez dira aldatuko aparteko prestazioa jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak apartatu honetan ezartzen dena betetzeko behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hark ezartzen dituen prozeduren bitartez, bai prestazioa behin-behinean onartzen denean, bai ondoren, berrikusten denean, 9. eta 10. apartatuetan ezartzen den bezala.

6. Langile autonomoek prestazio hau jasotzen badute eta ez badute kotizatzen jarduera uzteagatik, kontzeptu horrengatik kotizatu beharko dute prestazioa amaitzen den hilaren ondoko hiletik aurrera.

7. Prestazioa jasotzeko eskubidea amaituko da, baldin eta prestazioa jasotzen ari den bitartean baldintzak betetzen badira, arau honen 7. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan arautzen denaren arabera, prestazioa jasotzeko jarduera uzteagatik (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Nolanahi ere, interesdunak dagokion prestazioa eskatu ahal izango du.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jaso ahal izango dute, ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta erabaki badute norberaren konturako langile gisa behar den araubide berezian sartzea eta apartatu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

9. Prestazioa Itsasoko Gizarte Institutuak edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek kudeatuko dute.

Prestazioa kudeatzen duen entitateak behin-behineko ebazpena emango du, aurkeztutako eskaeraren arabera eta, behar denean, aurkeztutako dokumentuen arabera, eta eskubidea onartu edo ukatuko du.

Eskubidea izapidetzeko onartuko bada, ezinbestekoa da unitateko kideek lan eginez jasotzen dituzten diru-sarreraren zinpeko aitortpena aurkeztea; halaber, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzen laguntzen duten mutualitateei baimena eman behar zaie Ogasun Ministerioari behar diren zerga-datuak eskatzeko, prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten. Hori



guztia gorabehera, prestazioaren jasotzaileak enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu behar dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

10. 2021eko irailaren 1etik aurrera hartutako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

a) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek, horretarako, langile autonomoen 2020ko lehen hiruhilekoari eta 2021eko lehen bi hiruhilekoei dagozkien zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari.

Gizarte Segurantzarekin edo Itsasoko Gizarte Institutuarekin elkarlanean diharduten mutualitateek ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua egin eta hurrengo hamar egunean:

1.a BEZaren 2020ko urteko laburpen-aitorpenaren 390 ereduaren kopia eta hiruhilekoko likidazioenak (303 ereduak), bai eta 2021eko lehen bi hiruhilekoko likidazioenak ere (303 ereduak).

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako 2020ko lau hiruhilekoetako autolikidazioen kopiak (130 ereduak) eta 2021eko lehen bi hiruhilekoetako autolikidazioenak. Pertsona fisikoen errentaren aitortpena edo besteren kontura lan eginez jasotako ordainsarien berri ematen duen enpresa-ziurtagiria.

2.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 ereduak) ordaintzen duten langile autonomoek manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

b) Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira.

Horretarako, prestazioa onartzeko eskumena daukan erakundeak ebazpena emango du eta itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehaztuko du. Diru kopuru hori interesik edo errekarurik gabe itzuli beharko da ebazpenean zehaztutako aldian.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako aldia igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaintzeke dagoen zorra erreklamatu du, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekaruak eta interesak barne.

11. Prestazioa eskatzearekin batera interesdunak prestazioa kudeatzen duen mutualitateari edo entitateari adierazi beharko dio zein diren familia-unitateko kideak eta haietako batek prestazioa jasotzen duen edo jaso dezakeen jarduera uzteagatik edo familia-unitateak beste diru-sarrerarik daukan.

12. Apartatu honetan arautzen den prestazioa eskatzen duen langile autonomoak aukera hauek ditu:

Prestazioari uko egitea 2021eko apirilaren 30a baino lehen, edozein unetan. Uko egiteak jakinarazpena egiten denetik hilabete pasatutakoan sortuko ditu ondorioak.

Jarduera uzteagatik jasotako prestazioa bere ekimenez itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon gabe, baldin eta uste badu 2021eko lehen seihilekoan jasotako diru-sarrerak edo aldi horretan fakturazioan izan den beherakadak 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

7. artikulua. *Prestazioa jasotzea jarduera uzteagatik eta aldi berean norberaren kontura lan egitea.*

1. 2021eko otsailaren 1etik aurrera, langile autonomoek jarduera uzten dutenentzat Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 327. artikuluan ezartzen den prestazioa eskatu ahal izango dute, baldin eta arau honetan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 330.1 artikuluen a), b), d) eta e) apartatueta

ezarritako baldintzak betetzen badituzte (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

2. Prestazioa jaso ahal izateko, bi baldintza hauek bete behar dira: norberaren konturako jardueraren bidez 2021eko lehen sei hilekoan lortutako diru-sarrerak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, 2019ko bigarren sei hilekoan lortutakoak baino % 50 gutxiago izatea, eta 2021eko lehen sei hilekoan lortutako etekin garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, ez izatea 7.980 euro baino gehiago.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, kontuan eduki behar da 2019ko bigarren sei hilekoko alta-aldia, eta 2021eko lehen sei hilekoan lortutako diru-sarreraren proportzio bereko zatiarekin alderatuko da.

Beren kargura gutxienez langile bat duten langile autonomoek, prestazioa eskatzean, egiaztatu beharko dute beren gain hartutako laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo dute, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo erakunde kudeatzaileak hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango diete.

3. Prestazioa 2021eko maiatzaren 31ra arte jaso ahal izango da gehienez, baldin eta langileak prestazioa jasotzeko eskubidea badauka Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 338. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, prestazioa 2021eko maiatzaren 31ra arte jaso ahal izango dute jasotzeko eskubidea 2021eko otsailaren 1ean sortu eta 2021eko maiatzaren 31 baino lehen galtzen duten langile autonomoek ere, ezarritako baldintzak betetz gero.

2021eko maiatzaren 31tik aurrera, jarduera uzteagatik ematen den prestazio hau kasu honetan baino ezin izango da jaso: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 330. artikuluko baldintza guztiak betetzen direnean.

4. Prestazioa jasotzeko eskubidea mutualitate laguntzaileek edo Itsasoko Gizarte Institutuak onartuko dute behin-behinean, 2021eko otsailaren 1etik aurrerako ondorioekin, baldin eta otsaileko lehen hogeita bat egun naturaletan eskatzen bada, edo, bestela, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrerako ondorioekin (2021eko irailaren 1etik aurrera, erregularizatu beharko da).

Eskabidea izapidetzeko onartuko bada, ezinbestekoa da Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzen laguntzen duten mutualitateei baimena ematea Ogasun Ministerioari behar diren zerga-datuak eskatzeko, prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiaztatu dezaten.

5. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak, 2021eko irailaren 1etik aurrera, onartutako prestazioen jarraipena eta kontrola egiteko beharrezkoak diren 2019ko eta 2021eko ekitaldietako zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua egin eta hurrengo hamar egunean:

1.a Balio erantsiaren gaineko zergaren 2019ko hirugarren eta laugarren hiru hilekoetako eta 2021eko lehen eta bigarren hiru hilekoetako aitortzen autolikidazioen kopiak (303 eredu).

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren 2019ko hirugarren eta laugarren hiru hilekoetako eta 2021eko lehenengo eta bigarren hiru hilekoetako zatikako ordaintzen autolikidazioaren kopiak (130 eredu).

2.a Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 eredu) ordaintzen duten langile autonomoek manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatze behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, edo bestelako frogabideren bat.

6. Entitate laguntzaileak edo prestazioa onartzeko eskumena daukan entitateak datuak egiaztatu ondoren, jasotako prestazioak erreklamatu zaizkie manu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituzten langile autonomoei.

Erreklamazioa egiteko eskumena daukan entitateak zehaztuko du zer egunetan ordaindu behar diren erreklamaturako zenbatekoak, interesik edo errekar gurik gabe.

Horretarako ematen den ebazpenean ezartzen den epealdia igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaintzeke dagoen zorra erreklamaturako du, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekar gurak eta interesak barne.

7. Prestazioa jasotzen ari den bitartean, langile autonomoak kotizazio-oinarriari indarrean dauden tasak aplikatuta ordaindu beharko dizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari kotizazio guztiak.

Mutualitate laguntzaileak, edo Itsasoko Gizarte Institutuak, hari badagokio, prestazioa ordainduko dio langileari jarduera uzteagatik, eta, horrekin batera, langile autonomoa inolako jarduerarik egin gabe egonez gero ordaindu beharko zituen gertakari arrunten kotizazioen zenbatekoa ere bai, Segurtasunaren Lege Orokorrean testu bateginaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

8. 2021eko maiatzaren 31 baino lehen uzten bada jarduera behin betiko, apartatu honetan ezartzen diren baldintzen mugak jardueraren iraupenaren proportzioan aplikatuko dira. Halakoetan, kalkulua egiteko, osorik kontuan hartuko da langilea dagoen Gizarte Segurantzaren araubidean baja hartzen den hila.

9. Artikulu honetan arautzen den prestazioa eskatzen duen langile autonomoak aukera hauek ditu:

Prestazioari uko egitea 2021eko apirilaren 30a baino lehen, edozein unetan. Uko egiteak jakinarazpena egiten denetik hilabete pasatutakoan sortuko ditu ondorioak.

Jarduera uzteagatik jasotako prestazioa bere ekimenez itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon gabe, baldin eta uste badu 2021eko lehen seihilekoan jasotako diru-sarrerak edo aldi horretan fakturazioan izan den beherakadak 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

10. Aurreko apartatuetan ezartzen dena gorabehera, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateragarria izan daiteke norberaren kontura lan egitearekin, baldintza hauek betez gero:

a) Norberaren konturako lanaren diru-sarrera garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, eta besteren konturako lanaren diru-sarrerak ezin dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,2 baino gehiago. Kalkulu horretan, besteren konturako lanaren diru-sarrerak ezin dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino gehiago.

b) Prestazioaren zenbatekoa jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50 izango da.

c) Eskabidearekin batera, besteren kontura lan eginez jasotzen diren diru-sarreren zinpeko aitortpena aurkeztu behar da. Horrez gainera, prestazioa kudeatzen duen entitateari enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu behar zaizkio.

d) Aurreko apartatuetan xedatzen dena ez da aplikatuko, apartatu honetan xedatzen denaren kontra egonez gero.

8. artikulua. *Aparteko prestazioa sasoikako langileentzat jarduera uzteagatik.*

1. Manu honen ondorioetarako, hauek hartuko dira sasoikako langileentzat: 2018. eta 2019. urteetan lan bakarria Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian egin duten langile autonomoak, urte bakoitzean araubide horietan gutxienez lau hilabete eta gehienez sei egon direnak.

Gizarte Segurantzaren araubide batean besteren konturako langile gisa alta emanda egon diren aldia 120 egunetik gorakoa ez denean iritziko zaio 2018. eta 2019. urteetan langile autonomoek lan bat bakarrik egin dutela.

2. Hona prestazioa jasotzeko eskubidea edukitzeko baldintzak:

a) Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta emanda egon izana eta kotizatu izana norberaren konturako langile gisa gutxienez lau hilabetez eta gehienez sei hilabetez, bai 2018an, bai 2019an. Ezinbestekoa da aldi horren barruan gutxienez urteko lehen erdiko bi hilabete egotea.

b) 2021eko lehen seihilekoan besteren konturako langile gisa Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean 60 egun baino gehiago alta emanda edo horren pareko egoeran ez egotea.

c) 2021eko lehen erdian lortutako diru-sarrera garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, 6.650 euro baino gehiago ez izatea.

d) Gizarte Segurantzaren kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epealdi luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeko erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

3. Artikulu honetan arautzen den prestazioaren zenbatekoa hau izango da: Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, bestela, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian egindako jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 70.

4. Artikulu honetan arautzen den aparteko prestazioa, jarduera uzteagatik emango dena, 2021eko otsailaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango da sortzen, eta gehienez lau hilabete iraungo du, baldin eta eskaera otsaileko lehen hogeita bat egun naturaletan aurkezten bada. Bestela, eskaera aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak eta gehienez 2021eko maiatzaren 31ra arte egongo da indarrean.

5. Prestazioa jasotzen den bitartean, ez da egongo kotizatu beharrik, eta langilea alta emanda edo horren pareko egoeran egongo da Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean.

6. Egin behar ez diren kotizazioak aurrekontuen kargura prestazioa estaltzen duen erakundeak ordainduko ditu.

7. Prestazio hau bateraezina izango da besteren konturako lanarekin eta onuraduna jasotzen ari den Gizarte Segurantzaren edozein prestaziorekin (salbuespena: onuradunak norberaren kontura zuen jarduerarekin bateragarria izanik jasotzen duen prestazioa). Halaber, bateraezina izango da norberaren konturako lanarekin eta itxierak jarduera ukitu dion sozietatearen etekinak jasotzearekin, baldin eta 2021eko lehen erdiko diru-sarrerak 6.650 euro baino gehiago badira.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da flota gerarazteagatik ematen diren laguntzekin.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jaso ahal izango dute, ezarritakoarekin bat etorritz, baldin eta erabaki badute norberaren konturako langile gisa behar den araubide berezian sartzea eta artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

9. Prestazio hau Itsasoko Gizarte Institutuak edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek kudeatuko dute.

Eskaera izapidetzeko onartuko bada, ezinbestekoa da Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzen laguntzen duten mutualitateei baimena ematea Ogasun Ministerioari behar diren zerga-datuak eskatzeko, prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten.

10. Artikulu honetan arautzen den prestazioa edozein unetan eskatu ahal izango da araua indarrean jartzen denetik 2021eko maiatzera bitartean.

Eskaeraren ondorioak 4. apartatuan zehaztutakoak dira.

Prestazioa kudeatzen duen entitateak behin-behineko ebazpena emango du, aurkeztutako eskaeraren arabera eta, behar denean, aurkeztutako dokumentuen arabera, eta eskubidea onartu edo ukatuko du.

11. 2021eko irailaren 1etik aurrera, hartutako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

a) Itsasoko Gizarte Institutuak edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek, horretarako, langile autonomoen 2021eko lehen seihilekoari dagozkion zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua egin eta hurrengo hamar egunean:

1.a 2021eko lehen bi hiruilekoetako aitortpenen kopiak (303 ereduak).

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2021eko lehen bi hiruilekoetako zatikako ordainketen autolikidazioen kopiak (130 ereduak).

2.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren arabera (131 ereduak) ordaintzen duten langile autonomoek manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

b) Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira.

Horretarako, prestazioa onartzeko eskumena daukan entitateak ebazpena emango du eta itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehaztuko du. Diru kopuru hori interesik edo errekarurik gabe itzuli beharko da ebazpenean zehaztutako aldian.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaintzeke dagoen zorra erreklamatu du, Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekaruak eta interesak barne (ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

12. Artikulu honetan arautzen den prestazioa eskatzen duen langile autonomoak aukera hauek ditu:

Prestazioari uko egitea 2021eko apirilaren 30a baino lehen, edozein unetan. Uko egiteak jakinarazpena egiten denetik hilabete pasatutakoan sortuko ditu ondorioak.

Jarduera uzteagatik jasotako prestazioa bere ekimenez itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon gabe, baldin eta uste badu prestazioa jasotzeko eskubidea daukan aldian jardueraren bidez lortuko dituen diru-sarrerak 2.c) apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskurapen-tasa txikia dituzten sektoreetako enpresak.*

1. Hauek hartzen dira aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskurapen-tasa txikia dituzten sektoreetako enpresatzat: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen 1. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik eta berez 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatu zaien eta EJSN-09 Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako kodeetako jardueraren batean diharduten enpresak.

2. 2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean, enpresa hauek ez dute egin beharko ekarpenik Gizarte Segurantzaren kotizazioetarako, ez eta baterako diru-bilketaren kontzeptuarengatik ere (ehunekoak eta baldintzak ondoko apartatuan zehazten dira):

a) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta eta indarrean dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen 1. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik eta berez luzatzen zaien enpresek, baldin eta aldi baterako enplegu-

erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskurapen-tasa txikia dituen sektore batekoak badira 1. apartatuaren arabera, eta duten jardueraren kodea arau honen eranskinean agertzen diren EJSN-09 Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako kodeen artean badago araua indarrean jartzen denean.

b) Aurreko a) letran aipatzen diren enpresen artean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aipatzen diren arrazoietakoa batean oinarritutako ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako espediente batera 2021eko otsailaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean pasatzen direnek.

c) Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 3. apartatuaren b) eta c) letretan aipatzen diren enpresek, baldin eta 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten titularrak badira, aipatutako lehenengo xedapen gehigarrian arautzen diren salbuespenetako bat aplikatzeko eskubidea eduki badute eta duten jardueraren kodea arau honen eranskinean agertzen diren EJSN-09 Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako kodeen artean badago araua indarrean jartzen denean.

d) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta eta indarrean dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente 1. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik eta berez luzatzen zaien enpresek, baldin eta haien negozioaren zatirik handiena aurreko letretan aipatzen diren enpresen mende badago zeharka, edo halako enpresen balio-katearen barruan badaude.

Horri dagokionez, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan zehazten da zein diren aurreko letretan aipatzen diren enpresen balio-katearen barruan dauden edo zeharka haien mende dauden enpresak.

Beste baten mendekotzat edo beste baten balio-kateko enpresatzat jotako enpresak ere salbuetsita daude ekarpenak egin beharretik, lehenengo xedapen gehigarri honetan ezartzen den eran, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aipatzen diren arrazoietakoa batean oinarritutako ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako espediente batera pasatu badira irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 3.d) apartatuan ezartzen den bezala, edo 2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean pasatzen badira, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan edo errege lege-dekretu honen 3. artikuluan ezartzen den bezala.

3. Aurreko apartatuan zehazten diren enpresak salbuetsita egongo dira langile hauei eta lan egindako aldi eta lanaldi-ehuneko hauei dagokienez: aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean egon ondoren 2021eko otsailaren 1az gero berriz ere lanean hasi diren langileak edo Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuaren 4.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera berriz ere lanean hasi diren langileak eta 2021eko otsailaren 1etik aurrera lan egindako aldiak eta lanaldi-ehunekoak, eta 2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean jarduera etenda eduki duten langileak eta etenduraren eraginpeko lanaldiak eta lanaldi-ehunekoak. Hona salbuetsitako ehunekoak eta salbuespena aplikatzeko baldintzak:

a) 2021eko otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 85, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile (edo langileen pareko pertsona) baino gutxiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) 2021eko otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean sortutako enpresa-ekarpenaren % 75, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile (edo langileen pareko pertsona) baino gehiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

4. Xedapen gehigarri honetan arautzen diren salbuespenak bateraezinez dira 1. eta 2. artikuluetan arautzen diren neurriekin. Halaber, irailaren 29ko 30/2020 Errege

Lege Dekretuaren 2. artikulua 3., 4., 5. eta 6. apartatuetan ezartzen dena ere aplikatuko zaie.

5. Salbuespen hauek, jarduera etenda daukaten langileei dagokienez eta etenduraren eraginpeko aldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluko enpresa-ekarpenaren ordainketari aplikatuko zaizkio, bai eta baterako bilketaren kuotei ere.

6. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, enpresaren jardueraren sailkapenaren kodea (EJSN-09) 2020ko irailean aurkeztutako kuoten likidazioetako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakarien kotizazioen tasak kalkulatzeko aplikatzen dena izango da, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denarekin bat etorritik.

Bigarren xedapen gehigarria. *Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea.*

1. Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea hauek osatuko dute: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioak (CEOE), Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioak (CEPYME), Langile Batzordeak (CCOO) eta Langileen Batasun Orokorra (UGT). Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera egiteko hauek edukiko ditu: errege lege-dekretuan jasotako neurriak eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaera baloratzea eta enplegua eta ekoizpen-sarea babesteko etorkizunean hartzen diren neurriak aztertzea.

2. Egiteko horiek betetzeko, batzordeak ohiko bilkura egingo du hamabostean behin, arau hau indarrean jartzen denetik. Biltzeko, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak deialdia egingo du aurrez. Gainera, bilkura bereziak egingo dira batzordeko lau erakundeetatik hiruk eskatzen dutenean.

Hirugarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia luzatzea.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua, Mecuida plana arautzen duena, 2021eko maiatzaren 31ra arte egingo da indarrean.

Laugarren xedapen gehigarria. *Azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria luzatzea.*

2021eko maiatzaren 31ra arte luzatzen da 32/2020 Errege Lege Dekretuak (32/2020 ELD, azaroaren 3koa, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituena) lehenengo xedapen gehigarrian arautzen duen neurriaren iraunaldia: laneratzeko errenta aktiboaren programan sartzeko eta langabeziaren ezohiko subsidioa eskuratzeko kasuetan, enplegua aktiboki bilatzen ari dela egiaztatzeko betebeharra aldi baterako etetea.

Bosgarren xedapen gehigarria. *2021eko gutxieneko kotizazio-oinarriak.*

Harik eta 2021. urterako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen errege-dekretua onartu arte, 2021eko Gizarte Segurantzako gutxieneko kotizazio-oinarriak 2019ko abenduaren 31ra arte indarrean egon direnak izango dira, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak 27. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik (testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Seigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jardura suspertzeko laguntza-neurrien jarraipen-batzordea.*

Arau honen 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan eta bigarren xedapen iragankorrean ezartzen diren neurrien jarraipena egiteko eta neurriak ebaluatzeko zeregina ematen zaio Gizarte

Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera suspertzeko laguntza-neurrien jarraipen-batzordeari; batzorde hori Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren itzalpean sortua da.

Lehenengo xedapen iragankorra. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan ezartzen dena aplikatzea 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan arautzen diren langabezia-babesaren arloko aparteko neurriak 2021eko urtarrilaren 1etik arau hau indarrean ipini arte aplikatuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. *Iraunaldia luzatzea COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritza eskudunak emandako ebazpenen bidez jarduera aldi batez erabat etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoek jarduera uzteagatik jasotzen duten aparteko prestazioari, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 13. artikulua 1. apartatuan arautzen duenari.*

COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritza eskudunak emandako ebazpenen bidez jarduera aldi batez erabat etenda gelditzeak eragin dien eta jarduera uzteagatik aparteko prestazioa (Enpleguaren aldeko gizarte neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 13. artikulua 1. apartatuan arautzen duena) 2021eko urtarrilaren 31n jasotzen ari diren langile autonomoek jarraitu ahal izango dute prestazioa jasotzen, baldintza eta betekizun berekin, jarduera etenda dagoen aldi osoan eta neurria bertan behera uzten den hilaren ondoko hileko azken egunera arte edo 2021eko maiatzaren 31ra arte, maiatzaren egun hori lehenagokoa bada.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Gizarte Segurantzaren Administrazioak nortasun-datuak egiaztatzea langabezia-babeserako prozeduretan.*

Gizarte Segurantzaren Administrazioak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, berek kudeatzen dituzten prozeduretan, interesdunen nortasuna egiaztatu ahal izango dute dauzkaten datuak eta informazioak alderatuz, bertaratu beharrik gabe hala egin ahal izanez gero, harik eta Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 129.4 artikuluan ezartzen diren ebazpenak eman arte (errege lege-dekretu honek finkatutako testuaren arabera).

Laugarren xedapen iragankorra. *Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubidean dauden langile autonomoen kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioen eta jarduera eteteagatik jasotzen den babeserako kotizazioen tasaren aplikazioa etetea.*

2021eko otsailaren 1etik aurrera, eta 2021eko lanbide arteko gutxieneko soldata igotzen ez den artean, ez da aplikatuko 28/2018 Errege Lege Dekretuak (28/2018 ELD, abenduaren 28koa, pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzekoa) bigarren xedapen iragankorrean ezartzen duen tasa-igoera. Beraz, 2020ko abenduaren 31n indarrean egon direnak izango dira Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubidean dauden langile autonomoen kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioen eta jarduera eteteagatik jasotzen den babeserako kotizazioen tasak.



Bosgarren xedapen iragankorra. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluen itzalpean aurkeztutako edo ebatzitako prestazio- eta subsidio-eskaerak.*

1. Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren babesean egindako langabezia-prestazioen eskaerak, errege lege-dekretu hau indarrean jartzean ebazteke badaude, beronek ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

2. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denerako eskaerek aldeko ebazpena jaso badute eta prestazioa edo subsidioa amaitu ez bada, ofizios onartuko da haren iraupena luzatzea, bertan ezartzen denarekin bat etorriz.

3. Azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluen babesean onartutako prestazioa edo subsidioa errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean amaitu zaien onuradunek beste eskaera bat aurkeztu ahal izango dute, bertan ezarritako aldirako eskubidea aitor dakien.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta hauek berariaz.

1. 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko; hamaseigarren xedapen gehigarria.

2. 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena; 13. eta 14. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetako lehenengoa. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena; 25. artikulua 2. apartatua aldatzen da, hain zuzen, eta honela gelditzen da:

«2. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 264. artikuluan jasotako langileei ez ezik, lan-sozietateetako eta lan elkartuko kooperatiboetako bazkide langileei ere aurreko apartatua araututa dauden neurriak aplikatu ahal izango zaizkie, baldin eta langabezia-gertakariarengatik kotizatzea aurreikusita badaukate.

Kasu guztietan, lan-harremana edo sozietate-harremana errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik hasita egotea eskatuko da, eta, 1.a) apartatuko neurrirako, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen ondorio-egunaren aurrekoa izatea».

Azken xedapenetako bigarrena. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena; 9. artikulua 2. apartatua aldatzen da, hain zuzen, eta honela gelditzen da:

«2. Era berean, ezohiko prestazioa aitortuko zaie aldizkako kontratu finkoa duten langileei eta sasoi jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldirokoak egiten dituztenei, baldin eta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6

artikuluko b) eta d) bitarteko letretan aurreikusitako kasuren batean egoteagatik, neurri horietako edozeinen onuradun izan badira eta, behin neurriok agortuta, lanik gabe jarraitzen badute, ez kotizaziopeko ez laguntzako langabezia-prestaziorik jasotzeko eskubiderik gabe, edo halako prestazioak eduki baina 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen agortzen bazaizkie.

Hala ere, ezohiko prestazioa jaso ahal izango dute kotizaziopeko edo laguntzako prestazioari uko egiten diotenek».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko presako neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legea, eta honela geratzen da:

Bat. 89. artikulua 1. apartatua honela geratzen da:

«1. Alderdi interesdun guztien arteko lankidetzak, elkarriketa eta adostasuna sustatuko da 88.e) artikuluan aipatzen diren gazteak lan-munduan txertatzera eta gazte horien enplegarritasuna hobetzera bideratutako politikak modu koherentean integratuko dituen baterako lan bat ahalbidetzeko».

Lankidetzak horrek interesdunen parte-hartze eta konpromiso aktiboa dakar Gazte Bermea Sistema Nazionalaren babespean egiten diren neurri eta ekintzak garatzeko garaian».

Bi. 97. artikulua a) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

«a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako edo Suitzako herritarra izatea, eta zirkulazio askea eta bizileku-eskubidea baliatuta egotea Espainian.

Espainiako lurraldean bizitzeko eta lan egiteko gaitzen duen baimenaren titular diren atzerritarrak ere erregistra daitezke, bai eta bidaidetik gabeko adingabeak ere, baldin eta adingabeen babeserako autonomia-erkidego bateko zerbitzuaren egiaztagiria badute, banaka justifikatzen duena adingabeen onurarako izango diren hezkuntzako edo prestakuntzako jardura edo programetarako inskribatuta daudela».

Hiru. 105. artikulua 1. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio amaieran; hona:

«Apartatu honen a), b) eta c) letretan ezartzen diren baldintzak ez zaizkie aplikatuko aurreko enpleguan edo jardunean hasi zirenean Gazte Bermea Sistema Nazionalaren onuradunak izan ondoren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean gelditu diren gazteen lanpostuak mantentzeko neurriei. Xedapen honek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak onartu direnetik aurrera sortuko ditu ondorioak».

Lau. Honela geratzen da 106. artikulua:

«90. artikuluan xedatutako helburuen kasuan, 88.e) artikuluan aipatzen diren subjektuen aldeko honako neurri eta ekintza hauek garatu behar dira:

a) Bitartekotza-helburua betetzearren, aktibazio goiztiarra hobetzeko edo lan-arloko bitartekotzako nahiz mugikortasuneko prozesuak perfektionatzeko lagungarri izango diren jardun edo neurriak garatuko dira; honelakoak izan daitezke: lanbide-orientazioa emateko jardunak, lan-arloko informazioa ematekoak eta lana bilatzen laguntzekoak, enplegatze-agentziekin egiten direnak, mugikortasun-programak eta hezkuntza-enplegu bitartekotza-programak, edo horien antzeko beste edozein.

b) Enplegarritasunaren helburua betetzearren, lanbide-arloko gaitasun eta trebetasunak hobetzeko lagungarri izango diren neurri edo jardunak garatuko dira; honelakoak izan daitezke: kontratatzeko konpromisoa dakarren prestakuntza, hizkuntzei eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei bereziki erreparatzen dien prestakuntza, enpresetan lanekoak ez diren praktikak egitea, lanbide-heziketa duala bultzatzea, lanbide-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza, lanbide-gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzea, Lantegi Eskolak eta Lanbide Etxeak garatzea, bai eta enplegu-prestakuntza programa mistoak ere. Horretaz gain, bigarren aukera lortzeko programak edo horien antzeko beste edozein ere garatu ahal izango dira, ikasteari behar baino lehenago utzi zioten gazteei zuzenduta.

c) Kontratazioa sustatzeko helburua betetzearren, 16 urtetik gora dituzten eta 88.e) artikuluan aipatzen diren subjektuen laneraterako lagungarri izango diren neurri edo jardunak garatuko dira; honelakoak izan daitezke: pizgarriak Gizarte Segurantzaren kotizazioan, indarreko araudian aurreikusitako prestakuntza-kontratuen sustapena, gutxieneko iraunaldia duten kontratuak egiteko enplegurako laguntzak, Gizarte Ekonomiaren sustapena, gazte ikertzaileen kolektiboari begirako prestakuntza eta enplegu-sustapena, aurreko enpleguan edo jardunean hasi zirenean Gazte Bermea Sistema Nazionalaren onuradunak izan ondoren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean gelditu diren gazteen lanpostuak mantentzeko neurriak, eta horien antzeko beste edozein.

d) Ekintzailletza bultzatzeko helburua betetzearren, ekintzaile-espirtua bultzatzeko neurri edo jardunak garatuko dira eta, horretarako, erantzukizuna, berrikuntza eta ekintzailletza sustatuko dira, eta enpresak sortzen laguntzen laguntza zerbitzu gehiago eskaini, batik bat enplegu-zerbitzu, enpresei laguntzeko erakunde eta finantzaketa-hornitzaileen artean lankidetzak estutuz. Honelako neurri edo jardunak garatu ahal izango dira: pizgarriak Gizarte Segurantzaren kotizazioan, autoenplegurako laguntzak, langabeziagatik prestazioa kapitalizatzea, kultura ekintzailea sustatzea, autoenplegua eta ekintzailletza kolektiboa ahalbidetzeko neurriak Gizarte Ekonomiaren esparruan, autoenplegurako eta enpresak sortzeko aholkularitza, eta ekintzailletzarako prestakuntza, edo horien antzeko beste edozein.

Zeharkako moduan, desgaitasuna duten eta/edo bazterketa jasateko arriskuan dauden gazteen kasuan prestakuntza-programetarako eta enplegurako sarbidea aintzat hartuko da, dela enplegu arruntaren bidez, dela babestutako enpleguaren bidez. Edonola ere, jardunen diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko garaian genero-ikuspegia aintzat hartu behar da.

Hartzen diren neurriak 88. artikularen a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren subjektuek beteko dituzte, bakoitzak bere eskumen-eremuan».

Azken xedapenetako laugarrena. *Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina aldatzea, zeina abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Aldatu egiten da 53.1 artikularen a) paragrafoa, eta honela geratzen da:

«a) Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileak edo Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileordeak egiaztatutako gertaerak, akta eragin dutenak, arau-haustea zehazteko eta tipifikatzeko eta ezarri beharreko zehapenaren gradua zehazteko garrantzitsuak direnak nabarmenduz.

Automatizatutako jarduketa administratiboetan egiten diren aktetan, arau-haustearen gertaerak».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea, zeina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta honela geratzen da (aldaketak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik sortuko ditu ondorioak, eta indarraldi mugagabea dauka):

Bat. 40. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

«40. artikulua. *Pertsonen, nortasunik gabeko entitateen, finantza-entitateen, funtzionario publikoen, profesional ofizialen eta agintarien informatzeko eginbeharra.*

1. Pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta nortasunik gabeko entitateek Gizarte Segurantzaren Administrazioaren eskumenetan eragina duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eman beharko dizkiete Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eta Itsasoko Gizarte Institutuari, haiiek eskatzen dituzten guztietan; batez ere, likidazioaren, kotizazioen kontrolaren eta Gizarte Segurantzaren baliabideen bilketaren ingurukoak eta baterako diru-bilketako gainerako kontzeptuen ingurukoak.

Premiamendu-egoeran dauden eta Gizarte Segurantzari zor dioten dirua eskudirutan, kontuetan, baloreetan edo beste ondasunetan gordailutzen duten pertsonak edo entitateak, bereziki, behartuta daude Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari informazioa ematera eta hark bere legezko eginkizunetan eskatzen diena betetzera.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen obligazioak bete beharko dira, izaera orokorrez edo Gizarte Segurantzaren Administrazio organo eskudunen banan-banan eginiko eskaeraz, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta epeetan.

3. Ezingo dira artikulua honen aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak bete gabe utzi bankuko sekretua babes hartuta.

Kontu korronteen, aurrezki-gordailuen eta eperako gordailuen, mailegu- eta kreditu-kontuen eta banku, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba eta banku- zein kreditu-trafikoan diharduten pertsona fisiko edo juridiko guztien gainerako eragiketa aktibo edo pasiboan mugimenduei buruzko errekerimenduak egingo dira aurrez Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusiak edo, kasua bada eta erregelamenduz ezarritako baldintzetan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari probintzialak baimena emanda, eta haietan zehaztu beharko dira ikerketaren xede diren eragiketak, ukitutako subjektu pasiboak eta ikerketaren irismena, xede duten aldiari dagokionez.

4. Funtzionario publikoek, profesional ofizialak barne, Gizarte Segurantzaren Administrazioari lagundu behar diote eta daukaten informazio guztia eman beharko diote, edozein motatakoa, beharrezkoa denean Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere egitekoak betetzeko, batez ere likidazioaren, kotizazioen kontrolaren eta Gizarte Segurantzaren baliabideen bilketaren ingurukoak eta baterako diru-bilketako gainerako kontzeptuen ingurukoak, kasu hauetan izan ezik:

- a) Korrespondentziaren edukia sekretua denean.
- b) Administrazio Publikoari helburu estatistiko hutsez emandako datuak sekretuak direnean.
- c) Notario-protokoloaren sekretua dagoenean. Sekretu horretan babestuta egongo dira bai Notariotzari buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34. eta 35. artikuluetan aipatutako agerkari publikoak, bai ezkontza-gaiei dagozkienak, ezkontzaren araubide ekonomikoari buruzkoak izan ezik.

5. Profesionalek diru-bilketa dela-eta garrantzizko informazioa Gizarte Segurantzaren Administrazioari emateko duten betebeharra ez da iritsiko beren jarduera dela-eta ezagutzen dituzten ondarez besteko datu pribatuetara, baldin eta haiek jakitera emateak arriskuan jartzen badu pertsonen ohorea edo intimitatea edo haien familiarena. Ez da iritsiko, halaber, aholkularitza edo defentsako zerbitzu profesionalak ematearen ondorioz bezeroen datu konfidentzialetara.

Profesionalek ezingo dute sekretu profesionala aipatu beren Gizarte Segurantzako kotizazioa egiaztatzeari oztopo egiteko asmoz.

Ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren zortzigarren artikuluan 1. zenbakiaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira agintari eskuduntzat: Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren titularra, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzako eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzako Estatu Organismoko zuzendaritzako organo eta zentroen titullarrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusia eta zuzendari probintzialak.

6. Gizarte Segurantzaren Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko, ez da ukituaren adostasunik beharko, lagapen hori egiten denean artikulua honetan ezarritakoa betez edota, oro har, laguntzeko eginbeharra betez, Gizarte Segurantzaren baliabideak eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera bildu beharreko kontzeptuak eraginkortasunez likidatzeko eta biltzeko.

Aurreko lerrokadan aipatutakoa betetze aldera, honako hauek behar beste datu, txosten eta aurrekari eman beharko dizkiote Gizarte Segurantzaren Administrazioari, likidazioak egiteko eta dirua biltzeko eginkizunak zuzen bete ditzan: agintariak (edozein dela ere horien izaera); Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organoen titularrek; organismo autonomoek, agentziek eta enpresa-entitate publikoek; ganberek eta korporazioek, elkargoek eta elkarte profesionalak; gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek; gainerako entitate publikoek, eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenek edo horiekin elkarlanean aritzen direnek; horretarako, betiere, betebeharrak horiek izaera orokorreko xedapen bidez ezarrita beharko du, edo Gizarte Segurantzaren Administrazioak errekerimendu zehatz bidez hala eskatu beharko du. Era berean, aipatutako administrazioari eta bertako langileei sostengua, laguntza, sorospena eta babesa eman beharko diete, beren eskumenak balia ditzaten.

Artikulu horretan aipatzen den datu-lagapena, ahal dela, bitarteko informatikoen bidez gauzatu da. Horretarako, Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere eskumeneko prozedurak izapidetzeko behar dituen datuak edo informazioa eskatu ahal izango ditu, bere sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

7. Artikulu honetan xedatzen denaren arabera ematen diren datuak, txostenak eta aurrekariak Gizarte Segurantzaren Administrazioaren egitekoetarako baino ez dira erabiliko, batez ere Gizarte Segurantzaren sistemako kotizazioak kontrolatzeko eta baliabideak biltzeko, bai eta estatistikak egiteko ere. Ez da beharko interesdunen baimena, eta lege honen 77. artikuluan xedatzen dena aplikatu beharko da betiere».

Bi. 71. artikuluan izenburua eta 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

«71. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Administrazioari informazioa ematea.*

1. Gizarte Segurantzaren Administrazioari kasu hauetan eman beharko zaio informazioa:

a) Ogasuneko Ministerioaren mendeko organismo eskudunek edo, hala dagokionean, autonomia-erkidegoetako edo foru-aldundietako erakunde eskudunek, urteko ekitaldi bakoitzaren barruan, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003

Legearen 95. artikulua araberako eta foru-arau baliokidearen arabera, honako datu hauek emango dizkiete prestazio ekonomikoak kudeatzeaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, entitate horiek hala eskatzean: prestazioen titularren errenta- eta ondare-mailari eta gainerako diru-sarrerei edo egoerei buruzko datuak, prestazio horiek jasotzeko eskubidea baldintzatzen duten heinean, bai eta ezkontide onuradunen eta familia-unitateetako beste kideen datuak ere, baldin eta datu horiek kontuan hartu behar badira prestazio horiek aitortzeko, mantentzeko edo haien zenbatekoa finkatzeko, une oro prestazioak jasotzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten eta lege ezarritako zenbatekoan jasotzen dituzten egiaztatzearen.

Halaber, laguntza edo dirulaguntza publikoak kudeatzen dituzten Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei informazioa eman beharko diete zerga-betebeharrak bete diren egiaztatzeko, eta, horrez gainera, laguntzak edo dirulaguntzak eskuratzeko desgaitasunari buruzko datuak eta laguntza edo dirulaguntza horiek emateari buruzkoak, kontuan eduki behar direnak eskubidea onartzeko edo laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko.

b) Justizia Ministerioak izendatzen duen organismoak inskripzio eta datuei buruz eskatzen dioten informazioa emango die Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, inskripzio eta datu horiek zerikusia dutenean Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo azkentzearekin.

Gainera, Zigortuen Erregistro Zentralaren arduradunak eta Kautelazko Neurrien, Errekisitorien eta Irmo Ez diren Epaien Erregistroaren arduradunak, gutxienez ere asteen behin, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei datuak emango dizkiete zigorrei, segurtasun-neurriei eta giza hilketaren doloaren delituaren egile izateagatik kriminaltasun-zantzu arrazionalak egoteagatik ezarritako kautelazko neurriei buruz, biktima ikertuaren aurrekoa, ondorengoa, anaia, arreba, ezkontidea edo ezkontide ohia bada, edo hari ezkontzarenaz antzeko afektibitate-harreman baten bidez lotuta egon bada. Informazio horiek artikulua hauen ondorioetarako emango dira: lege honen 231., 232., 233. eta 234. artikulua, Estatuko Klase Pasiboari buruzko Legearen testu bateginaren 37 bis eta 37 ter artikulua (testu hori apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 4., 5., 6., 7. eta 10. artikulua.

c) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek enpresaburuei datuak eskatzen dizkietenean komunikazioak sistema elektronikoen bidez egin ahal izateko, enpresaburuek telematikoki emango dizkiete datu horiek, horretarako behar den kanal informatikoa egonez gero, Gizarte Segurantzak haien langileen prestazioak onartzeko eta kontrolatzeko prozedura azkar egin ahal izatea bermatzen duten sistema elektronikoen bidez egiteko komunikazioak.

Langileei buruz emandako datuetan, beti zehaztu beharko dira langilearen izen-abizenak, nortasun-agiri nazionala edo atzerriarraren identifikazio-zenbakia, eta helbidea.

d) Estatistikako Institutu Nazionalak udal-eroldari buruzko helbide-datuak emango dizkie, behar diren aldikoak (barnean direla, hala badagokio, errolda historikokoak eta helbide horretan bizi direnen datuak), baita herritarrak non bizi diren edo non bizi izan diren argitzen duten datuak ere, prestazio ekonomikoak kudeatzeaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei eta itsasoko langileen itsasoko eta osasuneko trebakuntzan ari direnei, litekeena bada datu horiek lotura izatea edozein prozeduratan prestazioetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo deuseztatzearekin edo Gizarte Segurantzaren sistemako datu-baseetan dagoen informazioa eguneratzearekin.

e) Barne Ministerioak Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei jakinaraziko dizkie, bitarteko informatikoak erabiliz, atzerriarren egoerak onartu, luzatu edo aldatu diren datak, Espainiako bizileku-baimenak berritu, berreskuratu edo amaitu diren datak eta haien ondorioak, bai eta benetako bizilekua Espainian izatea

baldintzatzen daukan prestazio baterako eskubidea duten pertsonen mugimenduak ere.

Era berean, Nortasun Agiri Nazionalan edo atzeritarraren nortasun-agiri baliokidean agertzen diren eta entitate kudeatzaile horien prozeduretan garrantzia duten datuak emango dizkie Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei, baliabide informatikoen bidez.

f) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek telematikoki emango dizkiete Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak kudeatzen eta onartzen dituzten entitate kudeatzaileei prestazioetarako eskubidearen sorreran, aldatetan, kontserbazioan edo azkentzean eta horien zenbatekoan eragina duten datuak. Gainera, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioan eragina duten datuak emango dizkiote Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari, eskatuz gero.

g) Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak eta autonomia-erkidegoetako organismo eskudunek mendekotasun-graduari eta -mailari buruzko datuak eta desgaitasun-ziurtagirietan jasotako datuak emango dizkiete Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei, zerkusia baldin badute edozein prozeduratan prestazioetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, kontserbatzearekin edo azkentzearekin, bai eta Gizarte Segurantzaren sistemako datu-baseetan eta gizarte-txartel digitalaren sisteman dagoen informazioa eguneratzearekin ere.

Helburu berarekin, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean arautzen diren prestazioak jasotzen dituzten onuradunen datuak, prestazioen zenbatekoak eta eman, aldatu edo azkendu diren ondorio-egunak adieraziko dituzte.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena alde batera utzi gabe, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 37. artikuluan ezartzen den Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta Emateko Sistemaren lehen aipatutako prestazio ekonomikoei buruz bildutako informazioa emango dio Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari.

h) Autonomia-erkidegoek bitarteko informatikoen bidez emango dizkiete Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei familia ugarien tituluak aitortzeko eta iraungitzeko datei buruzko datuak, bai eta titulu horietan sartuta dauden familia-unitateko kideei buruzko datuak ere, baldin eta edozein prozeduratan prestazioak jasotzeko eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo iraungitzearekin zerkusia badute, bai eta datu-baseetan dagoen informazioa eguneratzearekin ere.

Halaber, laguntza edo dirulaguntza jasotzeko eskubidea onartzeko edo haien zenbatekoa ezartzeko orduan zerga-betebeharrei buruz kontuan eduki beharreko datuak eman beharko dizkiete laguntza edo dirulaguntza publikoak kudeatzen dituzten Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei.

Beste alde batetik, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezia kudeatzen duen entitateari itsaski-bilketako baimenen inguruko datuak eman beharko dizkiote, araubide horretan ari diren itsaski-bilketako langileei dagokienez.

i) Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiak ontzietan lanean ari diren pertsonen titulazioei buruzko datuak emango dizkio Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezia kudeatzen duen entitateari; hain zuzen ere, entitate horrek ematen duen itsasoko trebakuntza eskuratzeko prozedurarekin lotuta dauden datuak.

j) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bereziaren ordezkari gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek prestazioetan eragina izan dezaketen elkargoko profesionalen datuak emango dizkiote Gizarte Segurantzaren Administrazioari: afiliazioa, alta, baja eta datuen eta kotizazioen aldaketak».

«3. Ezintasun iraunkorra deklaratzeko eta berrikusteko prozeduretan, Gizarte Segurantzaren kasuko prestazio ekonomikoen ondorioetarako, bai eta aldi baterako

ezintasunagatiko prestazioen, zurtasun-prestazioen edo norberaren ardurapeko seme-alabagatiko familia-esleipenen onarpenari eta kontrolari dagokienez ere, interesdunek pairatzen dituzten eta prozedura ebazteko garrantzitsuak diren lesio eta gaixotasunekin lotutako txostenak, historia klinikoa eta gainerako datu medikoak bidaliko dizkiete osasun-arloko erakundeek, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek eta enpresa laguntzaileek Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei.

Osasun-zerbitzu publikoetan, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateetan, enpresa laguntzaileetan eta osasun-zentro pribatuetan langile horiei buruz dagoen historia klinikoa eskuratu ahal izango dute, modu elektronikoa eta paperean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari atxikitako ikuskatzaile medikoek, beren egitekoetan ari direla, Gizarte Segurantzako Sistemako langileen prestazioak onartzeko, prestazioen ordainketa kontrolatzeko eta kontingentzia zehazteko beharrezkoa denean, eta Itsasoko Gizarte Institutuari atxikita dauden itsasoko osasuneko medikuek ere bai, ontziratu aurreko azterketa medikoak egiteko (horien berri eman behar dute). Hori egiteko modua eta baldintzak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak hitzartuko dituzte.

Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek, prestazioak kontrolatzeko eta onartzeko dituzten eskumenetan dihardutela, osasun-zerbitzu publikoek, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek eta enpresa laguntzaileek emandako aldi baterako ezintasuneko parte medikoak jasoko dituzte eta haietan bildutako datuak landuko dituzte. Halaber, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek eta entitate laguntzaileek elkarri eman ahalko dizkiote onuradunei buruzko datuak, haurdunaldiko arriskuagatik edo edoskialdi naturaleko arriskuagatik ematen diren prestazioak onartzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak direnak.

Osasun-zerbitzu publikoen ikuskatzaile medikoek Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen eskuetan dauden datu medikoak eskuratu ahal izango dituzte baliabide elektronikoen bidez, beren eskumenak betetzeko beharrezkoak izanez gero.

Apartatu honetan arautzen diren kasuetan, ez da beharko interesdunaren adostasuna, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) eta 9.2.h) artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritz ((EB) 2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua –Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra– indargabetzen duena)».

Hiru. 77. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa eta c) eta d) letrak aldatzen dira eta i), j), k), l), m) eta n) letrak gehitzen. Honela geratzen da:

«77. artikulua. *Datuen erreserba.*

1. Bere eginkizunetan diharduela Gizarte Segurantzaren Administrazioak lortzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta bakarrik erabili ahalko dira Gizarte Segurantzaren Administrazioako entitate kudeatzaileei, zerbitzu erkideei eta organoei esleitutako xedeetarako. Hirugarrenei ezin izango zaizkie laga, ez komunikatu, lagapenaren edo komunikazioaren xedea hauetako bat izan ezean:»

«c) Lankidetzan jardutea Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzaitza Nagusiarekin barne-kontrollean, edo Gizarte Segurantzaren gainerako entitate kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin (lagatzailea ez beste guztiekin) eta Gizarte Segurantzaren Administrazioako gainerako organoekin.

d) Beste edozein administrazio publikorekin lankidetzan aritzea funts publikoen konturako laguntzak edo dirulaguntzak –Europar Batasunekoak barne– lortzeko edo jasotzeko iruzurraren aurka borrokatzeko, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideetan bateraezinak diren prestazioak lortzeko edo jasotzeko, eta, oro har,



Gizarte Segurantzaren Administrazioak lortutako datuak garrantzitsuak diren eta haiei legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko».

«i) Lankidetzan jardutea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtza Estatu Erakundearekin beraren ikuskapen-egitekoetan. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtza Estatu Erakundeak Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere egitekoetan ari dela lortzen dituen datuak, txostenak eta aurrekariak eskuratu ahal izango ditu, bere ikuskapen-egitekoak prestatzeko eta betetzeko beharrezkoak izanez gero.

j) Lankidetzan jardutea Trafiko Burutza Nagusia organismo autonomoarekin, hark abian jar dezan, behar denean, ibilgailu motordunak gidatzeko baimen edo lizentziaren indarraldia amaitutzat jotzeko prozedura, baimen edo lizentzia hura ematean ezarritako baldintzak ez betetzeagatik Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak deklaratu duenean gidari profesional batek ibilgailu motordunak gidatzeko gaitasuna eragozten edo ezerezten duen murrizketa organiko edota funtzional bat duela eta, haren ondorioz, lan egiteko ezintasun iraunkorra duela.

Lankidetzan abisu baten bidez gauzatuko da. Abisuan ez da agertuko langilearen osasunaren inguruko beste daturik.

k) Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundearen eskumeneko gizarte-prestazioak onartzeko eta kontrolatzeko ezinbestekoa den informazioa ematea prozedura informatikoen bitartez eta kasuan kasuko entitate kudeatzaileak ezarritako tratamendu-baldintzak betez. Ematen den informazioa ezin erabili izango da beste ezertarako, interesdunak baimena eman ezean.

l) Lankidetzan jardutea beste administrazio publiko batzuekin Gizarte Segurantzaren inguruko datuak emateko eta trukatzeko, estatistika publikoko helburuetarako, funtzio publiko hori arautzen duen legerian ezartzen denarekin bat etorriz.

m) Ikerketa zientifikoa gizarte-babesaren eremuan, (EB) 2016/679 Erregelamenduan ezarritako esparruan ((EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluarena, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) –Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra–, barnean direla, ikerketa ondo egiteko, bertan zuzenean aritzen ez diren pertsonen egin beharreko komunikazio instrumentalak. Xede horren barruko jardueratzat joko dira gizarte-babesaren arloko politika publikoak ebaluatzekoak.

Xede horretarako egiten diren tratamenduetan, kasuan kasuko jarduerarako ezinbestekoak diren datuak baino ez dira erabiliko. Gainera, prozeduretan ezin da egon interesdunak identifikatzeko modurik. Nolanahi ere, kasu batzuetan anonimizatu gabeko datuak eman ahal izango dira, ondorio instrumentaletarako soilik, ezinbestekoa denean jarduerarako. Horrelakoetan, beharrezkoak diren datuak baino ez dira emango; bermatu behar da tratamenduaren arduradunak ezin dituela erabili beste ezertarako, eta ondoko tratamenduan ezin da egon modurik interesdunak identifikatzeko.

(EB) 2016/679 Erregelamenduen 9. eta 10. artikuluetan aipatzen diren datuak tratatzeko, ezinbestekoa da ukitutakoek berariazko adostasuna adieraztea».

n) Lankidetzan jardutea Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiarekin ontzietako langileak Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden egiaztatzeko eta ontziratutako aurreko azterketa medikoak eta ontzietako botika-kutxak kontrolatzeko, ontzien izapideen inguruan esleituak dituen egitekoetan ari dela.

Apartatu honetan aipatzen diren datuak, txostenak eta aurrekariak baliabide elektronikoen bitartez laga edo emango dira, Gizarte Segurantzaren Administrazioaren ustez informazioaren izaera dela-eta baliabide horiek erabili ezin direnean izan ezik. Datuak, txostenak edo aurrekariak lagatzen edo ematen dituen entitate kudeatzaileak, zerbitzu erkideak edo organoak lagapena edo komunikazioa egiteko erabiliko diren prozedurak eta datuak ezarriko ditu».

Lau. 129. artikulua izenburua eta 1. apartatua aldatzen dira eta 4., 5. eta 6. apartatuak gehitzen dira; hona:

«129. artikulua. *Prozedura-arauak, autentifikazioa eta sinadura.*

1. Prestazioen eta Gizarte Segurantzaren arloko gainerako egintzak, langabezia-babesa barne dela, egintzek diru-bilketaren edo zehapenaren izaerarik ez dutenean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko dira, hartan horrelako egintzetarako aurkaratzeari eta berrikuspenari dagokienez ezarritako berezitasunekin, bai eta kapitulu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritako berezitasunekin ere».

«4. Gizarte Segurantzaren Administrazioak interesdunei lagunduko die beren eskubideak erabiltzen, agiriak aurkezten eta zerbitzuak edo izapideak egiten Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa dauden baliabide elektronikoen bitartez edo haien nortasuna egiaztatzeko eta borondatea eta adostasuna adierazteko aukera ematen duten beste baliabide batzuen bitartez. Horretarako prozedura eta baldintzak Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak ezarriko ditu, ebazpen batean.

Halaber, langabezia-babeserako prozeduren izapideetan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak interesdunei lagunduko die beren eskubideak erabiltzen, agiriak aurkezten eta zerbitzuak edo izapideak egiten Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa dauden baliabide elektronikoen bitartez edo haien nortasuna egiaztatzeko eta borondatea eta adostasuna adierazteko aukera ematen duten beste baliabide batzuen bitartez. Horretarako prozedura eta baldintzak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ezarriko ditu, ebazpen batean.

Hori dela eta, ebazpen horretan, pertsona fisikoak identifikatzeko metodo seguruak ezarriko dira: kanal telefonikoa edo ahotsezkoa, bideodeia edo bideidentifikazioa edo datu-erkapena, edo ezartzen diren beste batzuk. Ezartzen den metodoak pertsona bertaratzea bezain fidagarria izan behar du. Gainera, ezartzen den metodoak identifikazioaren ebidentzia kudeatzeko modua bermatu behar du.

5. Gizarte Segurantzaren Administrazioaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren prozedurak izapidetzean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10.1 artikulua ondoioetarako, balioduna izango da lege horren 11.2 artikuluan aipatzen diren agiritan txertatutako sinadura, edo agiri horiei atxikitako agiri batean txertatutakoa, baldin eta nortasun-agiri nazionalaren edo horren baliokidea den identifikazio-agiri baten kopia aurkezten bada eta nortasuna eta bizilekua egiaztatzeko zerbitzuak ontzat ematen badu.

6. Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak langabezia-babesaren arloan ebazpen bat emanez, kriptografikoa ez den sinadura elektronikoko sistemak ezarri ahal izango dira prozedura eta izapide jakin batzuk egiteko interesdunekin.

Kriptografikoa ez den sinadura elektronikoko sistemak erabiltzeko, lehenbizi, interesduna nor den egiaztatu beharko da, 4. apartatuan aipatzen diren baliabideen bitartez.

Kriptografikoa ez den sinadura elektronikoa erabiltzen den aplikazio informatikoetan, interesdunak berriaz adierazi beharko du ados dagoela eta sinadura hori erabili nahi duela. Gainera, sistemak hauek bermatu behar ditu: nahitaezko onarpena, kasuaren trazabilitatea, autentifikazioaren ebidentziaren kudeaketa eta aurkeztutako informazioaren zigilatzea».

Bost. 130. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«130. artikulua. *Gizarte Segurantzaren arloko prozeduren izapidetze elektronikoa.*

Sektore publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 41.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpenak modu automatizatuan hartu eta jakinarazi ahalko dira, bai III. tituluan arautzen diren langabezia-babesa kudeatzeko prozeduretan, bai lege honetan ezartzen diren Gizarte Segurantzaren sistemako gainerako prestazioak kudeatzeko prozeduretan (kotizazio gabeko pentsioen kasuan izan ezik), bai afiliazio, kotizazio eta bilketako prozeduretan.

Horretarako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren zuzendaritza nagusietako titularrek edota Itsasoko Gizarte Institutuko zuzendariak, kasuan-kasuan, ebazpen bat emango dute; ebazpen horretan, lehenik eta behin, kasuan kasuko prozedura edo prozedurak finkatuko dituzte, bai eta organo eskuduna edo eskudunak ere, hauek definitzeko: informazio-sistemaren eta haren iturburu-kodearen zehaztapenak, programazioa, mantentze-lanak, ikuskapena eta kalitate-kontrola, eta, beharrezkoa izanez gero, auditoretza. Era berean, aurkaratzeen ardura zer organok edukiko duen adieraziko da».

Sei. Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona:

«Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen organo probintzialen lurralde-eskumenak aldatzea.*

1. Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen zuzendaritza probintzialen eta horien mendeko unitateen lurralde-eskumenak probintziatik kanpoko lurralde-eremuetako prozedura eta jarduketetara hedatu ahal izango dira, entitatearen edo zerbitzuaren zuzendaritza-organoren arabera ebazpen batean ezartzen dituen baldintzetan eta moduan, eta ebazpen hori *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da.

2. Aurreko apartatuan ezartzen denarekin bat etorritik lurralde-eskumena hedatzea erabakiz gero, aurkaratzeei eta errekurtsioei dagokienez, pentsatuko da lurralde-eskumena hedatu ezean administrazio-egintza eman beharko zuen lurralde-organoren edo lurralde-unitatearen eman duela administrazio-egintza hori».

Zazpi. Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

«Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *RED sisteman aritzeko baimenduen gaikuntza.*

Lege honen 131. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, Gizarte Segurantzaren eremuan datuak elektronikoki bidaltzeko sistemaren bidez (RED sistema) jarduteko baimena dutenak gaituta egongo dira bitarteko elektronikoen bidez egiteko eragiketa hauen eskaerak eta gainerako izapideak, beraren ordezkari gisa diharduten subjektuari dagokionez: langileen afiliazioa, zorrak ordaintzeko geroratzeak, kotizazioak ordaintzeko luzamenduak eta Gizarte Segurantzarekiko sarrera bidegabean itzulketak.

Xedapen honetan aipatzen diren pertsona gaituek Gizarte Segurantzaren erregimenetako batean alta ematen zaien langileen edo horien parekoen telefono mugikorraren zenbakia eman ahal izango diote Gizarte Segurantzaren Administrazioari, RED sistemaren bidez, interesdunek ados daudela adieraziz gero. Adostasunaren adierazpenean, berriaz eman behar da baimena telefono mugikorra erabiltzeko langileak modu sinesgarrian identifikatzeko, eta Gizarte Segurantzaren Administrazioak komunikazioak eta abisua bidaltzea onartu behar da».

Zortzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

«Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren eta autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren arteko hitzarmenak.*

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo Itsasoko Gizarte Institutuak, autonomia-erkidegoekin eta, hala denean Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin sinatzen dituen hitzarmenetan, helburu zehatzak jarriko ditu langileen historia klinikoa eskuratzeko aukerari buruz (lege honen 71.3 artikuluan dago jasota aukera hori) eta informazio-trukeari eta eskuratzeeen jarraipenari buruz».

Bederatzi. Laugarren xedapen iragankorraren 5. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«5. 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen sortzen diren erretiro-pentsioei Gizarte Segurantzaren Sistema Eguneratu, Egokitu eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea indarrean jarri aurretik indarrean zeuden erretiro-pentsioaren modalitateak, eskuratzeko betekizunak, baldintzak eta prestazioak zehazteko arauak aplikatuko zaizkie oraindik, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, kasu hauetan:

a) Lan-harremana 2013ko apirilaren 1a baino lehenago azken duen pertsonen, baldin eta data horren ondoren Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean berriro sartzen ez badira.

b) Enplegua erregulatzeko espedienteetan hartutako erabakien ondorioz nahiz edozein esparrutako hitzarmen kolektibo, enpresako akordio kolektibo zein konkurtso-prozeduratan hartutako erabakien ondorioz lan-harremana etena edo azkendua duten pertsonen, horiek 2013ko apirilaren 1a baino lehen onartu, sinatu edo deklaratu badira, betiere lan-harremana 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenago azkendu edo eten bada.

Ezinbesteko baldintza izango da enpresako akordio kolektiboak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan edo, bestela, Itsasoko Gizarte Institutuan erregistratuta egotea; horretarako epealdia erregelamenduz ezarriko da.

c) Dena den, aurreko letretan aipatzen diren pertsonen beste aukera bat ere badute pentsioa jasotzeko eskubidea onar dakien: eskubidea sortzen duen egitea gertatzen denean indarrean dagoen legeria aplikatzea hauta dezakete».

Azken xedapenetako seigarrena. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Zenbait aldaketa egiten dira 32/2020 Errege Lege Dekretuan (32/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 3koa, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituenaren).

Bat. 2. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«1. Salbuespen gisa, eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren ondorioz, langabezia-prestazio ekonomikoak ohiz kanpo jasotzeko eskubidea duten ikuskizun publikoetako artistek halakoak jasotzen jarraitu ahal izango dute 2021eko maiatzaren 31ra arte, betiere 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen den bezala (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira).

2. Prestazioa bateraezina izango da norberaren konturako edo besteren konturako jarduerak egitearekin, eta beste edozein prestazio, gutxienezko errenta,

inklusio-errenta, gizarte-soldata eta edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzak jasotzearekin.

Prestazioa jasotzeko eskubidea onartu ondoren, eten egingo da eskubidea titularrak bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen bitartean. Eskubide hori eteten bada, eten egingo da prestazioaren ordainketa, eta, behin lana amaituta, prestazioa jasotzeko geratzen den denboraz hasiko da berriro, gehienez ere 2021eko maiatzaren 31ra arte.

3. Nolanahi ere, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, prestazioaren iraupenari buruzkoa izan ezik, hori 1. apartatuan adierazitako egunera arte luzatuko baita».

Bi. 3. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«4. Ezohiko subsidioa 2021eko maiatzaren 31n amaituko da, eta behin bakarrik jaso ahalko da».

Hiru. 4. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«3. Artikulu honetan araututako langabezia-prestaziorako eskubidea 2021eko maiatzaren 31n azkenduko da, data horretara arte kontsumitutako eskubide-egunak alde batera utzita.

Az kentze horrek ez dakar langabezia-prestazio kontributibo bat agortzea, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean araututako langabezia-subsidioak eskuratzearen ondorioetarako».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurrien azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

34/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, laugarrena (34/2020 ELD, azaroaren 17koa, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurriena). Hona:

«4. Salbuespen gisa, 2021. urtean, nahiz eta estatutuetan ezarrita ez egon, elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritza-sozietateen administrazio-organoen bilkurak eta kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluaren bilkurak bideokonferentziaz edo telefono-konferentzia anizkoitzez egin ahal izango dira, baldin eta organoko kide guztiek behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die bilkuran izan direnei, bakoitzaren helbide elektronikora. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eraturako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei. Bilkura pertsona juridikoaren helbidean egin dela iritziko zaio.

Salbuespen gisa, 2021. urtean, nahiz eta estatutuetan ezarrita ez egon, elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritza-sozietateen administrazio-organoen erabakiak, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluaren erabakiak eta fundazioen patronatuarenak idatziz eginiko bozketa baten bidez eta bilkurarik gabe hartu ahal izango dira, baldin eta lehendakariak hori egitea erabakitzen badu. Erabakiak horrela hartu beharko dira organoko kideetako bik gutxienez eskatuz gero. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eraturako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei. Bilkura egoitza sozialean egin dela iritziko zaio. Erabaki horiei guztiei Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren 100. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, merkataritza-sozietateak ez izan arren».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena, honela:

Bat. Honela geratzen da 2. artikulua:

«2. artikulua. *Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen aparteko luzapena.*

Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaien ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatu duen alarma-egoera amaitu arteko aldian amaitzen bada aurreko lege horren 9.1 artikuluan ezartzen den nahitaezko luzapena edo lege horren beraren 10.1 artikuluan ezartzen den isilbidezko luzapena, errentamendu-kontratuaren iraunaldiari ezohiko luzapena aplikatu ahal izango zaio, errentariak eskatu ondoren, sei hilabetekoa gehienez, eta, aldi horretan, indarrean dagoen kontratuan ezarritakoa eta bertan finkatutako baldintzak aplikatuko dira, ordura arte bezala. Errentatzaileak onartu egin beharko du aparteko luzapenaren eskaera, non eta alderdiek elkar hartuta ez duten besterik adostu edo, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 9.3 artikuluan ezarritako epealdian eta bertan agindu bezala, errentatzaileak ez duen jakinarazi errentatutako etxebizitza berak okupatu behar duela edo odolkidetasuneko lehen mailako edo adopzio bidezko ahaide batek edo, banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasuneko epai irmoa egonik, ezkontideak han bizitzeko».

Bi. 4. artikulua 1. apartatua honela geratzen da:

«1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago, hurrengo artikuluan zehazten den bezala, eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoa edo edukitzaile handia bada (hau da, hamar hiri-ondasun higiezin baino gehiagoren titularra, garajeak eta trastelekuak zenbatu gabe, edo 1.500 m<sup>2</sup>-tik gora eraikita dauden higiezin baten titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa), errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatu duen alarma-egoera amaitu arte errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko; nolahi ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiak lehendik adostuta ez edukitzea geroratzeko edo ordaindu beharreko kopuru osoaren edo zati baten barkamena».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da, Estatuari eskumen eskusiboa ematen baitiote lan-arloko legediaren eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Azken xedapenetako hamargarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Indarrearantz jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Madrilen, 2021eko urtarrilaren 26an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

## ERANSKINA

### Eragin nabarmena jasan duten eta lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen diren enpresen EJSN-09 kodeak

- 710. Burdina-meak ateratzea.
- 1811. Arte grafikoak eta horiekin lotutako zerbitzuak.
- 1812. Beste inprimaketa-jarduera batzuk eta arte grafikoak.
- 1820. Grabatutako euskarriak kopiatzea.
- 2051. Lehergaien fabrikazioa.
- 2441. Metal preziatuen produkzioa.
- 2670. Optikako tresnen eta argazkigintzako ekipoen fabrikazioa.
- 3212. Bitxien eta antzeko artikuluen fabrikazioa.
- 3213. Imitaziozko bitxien eta antzeko artikuluen fabrikazioa.
- 3316. Aireontzien eta espazio-ontzien konponketa eta mantentzea.
- 4624. Larruen handizkako merkataritza.
- 4634. Edarien handizkako merkataritza.
- 4741. Ordenagailuen, ekipo periferikoen eta programa informatikoen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
- 4932. Taxi-garraioa.
- 4939. Bidaiarientzako lehorreko beste garraio-mota batzuk, beste inon sailkatu gabeak.
- 5010. Bidaiarien itsas garraioa.
- 5030. Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik.
- 5110. Bidaiarien aireko garraioa.
- 5122. Espazioko garraioa.
- 5223. Aireko garraioarekin lotutako jarduerak.
- 5510. Hotelak eta antzeko ostatuak.
- 5520. Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk.
- 5530. Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak.
- 5590. Beste ostatu batzuk.
- 5610. Jatetxeak eta janari-postuak.
- 5630. Edarien establezimenduak.
- 5813. Egunkarien edizioa.
- 5914. Zinema-aretoetako jarduerak.
- 7711. Automobilen eta motor arineko ibilgailuen alokairua.
- 7722. Bideo-zinten eta -diskoen alokairua.
- 7729. Norberaren gauzen eta etxean erabiltzeko gaien alokairua.
- 7734. Nabigatzeko baliabideen alokairua.
- 7735. Aireko garraio bideen alokairua.
- 7911. Bidaia-agentzien jarduerak.
- 7912. Operadore turistikoen jarduerak.
- 7990. Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta horiekin lotutako jarduerak.
- 8219. Fotokopiak egitea, dokumentuak prestatzea eta bulegoko beste jarduera espezializatu batzuk.
- 8230. Biltzarrak eta erakustazokak antolatzea.
- 9001. Arte eszenikoak.
- 9002. Arte eszenikoekin lotutako jarduera osagarriak.
- 9004. Ikuskizun-aretoen kudeaketa.
- 9104. Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta natura-erreserbetako jarduerak.
- 9200. Zorizko jokoen eta apustuen arloko jarduerak.
- 9321. Jolas-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak.
- 9329. Olgetarako eta denbora-pasako beste jarduera batzuk.
- 9601. Ehunezko eta larruzko jantziak ikuztea eta garbitzea.
- 9604. Mantentze fisikoko jarduerak.